

Kirola

VI. Balcón de Bizkaia Rallya Durangaldera eta Arratiara helduko da bihar >13



JAIK!

**ATXONDO
BERRIZ**



Nazioarteko banden doinuak lau haizetara

Gaur arratsaldean hasiko da Haizetara jaialdia, eta asteburu osoan nazioarteko bederatzi musika banda lehiatuko dira Zornotzako kaleetan >11

Izurtzan adin txikiko atzerritarrak hartzen zituen zentroa itxi egingo dute > 8

2007az geroztik adin txikiko gazte atzerritarrak hartu ditu Etxaburu dorrearen ondoko eraikinak. Lاندان elkarteak kudeatu du zentroa, eta gazteen gizarteratzean eta emantzipazioan lan egitea izan du helburu. Azken urteetan Bizkaira heldu den gazte atzerritar kopurua jaitsi eginenez, zentro hori ixtea erabaki dute. Gazteak emantzipazio pisuetan kokatu dituzte. Urte hauetan izurtzarren partetik jasotako "harrera ona" eskertzeko hainbat ekitaldi prestatu dituzte sanjoanetan, Santo Tomas parkean.



Goizane Azpiri Maurtua

Naturopata kolegiatua, 3.515 zk.

Eskuzko teknikan eta psikofisikoetan aditua

Kontrakturen aurkako masajea

Drainatze linfatikoa

Osteopatia

Teknika kraneo-sakrala eta erraietako teknika

Estetika naturala: aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak



Etxez etxeko
zerbitzua
(aurretiko hitzordua)

San Ignazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599

OIZpe Sax 4tet

Saxoa eta Pedro
Iturraldei buruz
2 hitz eta 11 nota



Eguna: Ekainak 26, osteguna
Ordua: 19:30
Lekua: Hitz liburu denda

hitz
liburudenda
artekalea, 14 durango 946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Zaldibar > 4

Oinezkoek eskolaraino egiten duten bidea konpontzeko lanei ekingo die udalak

Durango > 3

Pochutako emakumeen egoera berbagai hartuko dute gaur

Otxandio > 6

Irudi korporatiboa berritzeko lehiaketa abiatu du udalak

Durangaldea > 3

Irregularitasunak salatu ditu LABek autobideko obretan

Herririk herri

Podemos-Ahal Dugu alderdia heldu da Durangaldera

Podemos-Ahal Duguren Durangaldeko zirkulua osatu zuten joan zen barikuan, Durangon

DURANGO Markel Onaindia Modan dago. Hedabideetako eta lagunarteko tertulietako gaia da. Podemos-Ahal Dugu, Pablo Iglesias irakasle eta telebista-ko esatariaren erreferentzia-pean jaio den alderdia, Espainia osoan hedatzen dabil astiro-astiro. Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan lortutako emaitza onak (Durangaldean, guztira, 1.625 boto) alderdiaren zabalpenerako tranpolina izan dira, eta orain antolakuntza zehazteko prozesu batean murgiltzen hasi dira bertako kideak

eta jarraitzaileak. Durangaldera ere ailegatu dira.

Durangaldeko zirkulua sortu zen joan zen barikuan Durango-ko Frai Juan Zumarraga institu-

50 bat lagun, gazte zein heldu, batu ziren institutuko aretoan eginiko aurkezpenean

tuan. Zirkulua deitzen diote batzar estiloari, biribilean jarrita



Neskutz Rodríguez, bozeramaileetako bat, alderdiaren oinarriak azaltzen.

egiten dituztelako asanbladak. Alderdiak interesa piztu duen seinale, 50 bat lagun, gazte zein heldu, batu ziren institutuko aretoan eginiko aurkezpenean. Bilkura hasteko Neskutz Rodríguez durangarrak hartu zuen berba, bera da alderdiak daukan bozeramaileetako bat. Bideo

bategaz eta diapositibekin Podemos-Ahal Duguren oinarriak azaldu zituen, herritarrak eta eskubide sozialak tarteko. Hainbestetan kritikatu izan duten "kasta" politikoa ere izan zuen berbagai, euren politika ez dela alderdi nagusien erakoa nabarmentzeko. Rodríguez azaldu

zuen urrira bitartean barne prozesua garatuko dutela.

Aurkezpene amaituta, atsedena txiki bat egin zuten. Entzuterak bakarrik joan zen jendeari irteteko aukera eman zioten, eta gainerakoekin lehenengo batzarra egin zuten, Durangaldeko zirkulua osatzen hasteko.

Hitzarmena sinatu dute udalak eta Garabidek

Nasa komunitateagaz egitasmo bat bultzatuko dute

DURANGO M.O. Udalak eta Garabide kultur elkarteak hitzarmena sinatu dute, eta, horren bidez, Kolonbiako Caucako nasa komunitate indigenagaz egitasmo bat bultzatuko dute. Nasa duela urte bi ipini zuten martxan euren hizkun-

tzan garatutako haur eskola, eta Euskal Herrian laguntza eskatu zuten, esperientzia pedagogiko-ki bideratzeko.

Egitasmoagaz, Durangoko hezkuntza arloan lanean dabil-tzan bi lagun hara joango dira, esperientzia trukatzera.



Goiztidi Diaz (udala) eta Andoni Barreña (Garabide), hitzarmena sinatzen.

Gasteizerako linearen harira batzarra deitu du udalak

Aldundiak eta lineako udalak gonbidatu ditu udalak

DURANGO M.O. Durango eta Gasteiz lotzen dituen autobus linearen gatazka bizirik dago, eta hori konpontzeko pauso bat eman gura izan du Durangoko Udalak. Batzartzeko gonbita egin die Bizkaiko eta Arabako foru aldundiei, eta baita autobusa pasatzen den gainerrako herrietako ordezkari ere. Prentsa oharra bidali dute uztaillaren 1ean, Durangon, izango den batzar horren deialdia azaltzeko. Baikor azaldu da Aitziber Irigoras alkatea (EAJ): "Deia eginga dago, beraz, espero dut batzarra baliagarria izatea Durangaldea Arabagaz lotzen duen autobus zerbitzua hobetzeko".

Kontua da 2015erako esleipen berri bat ipini duela martxan Arabako Foru Aldundiak, eta

koordinazio saiakera prozesu hori hasita dagoela dator. Linea Arabatik kudeatzen dute, baina erabiltzaile gehienak Durangaldekoak dira, eta, beraz, Bizkaian ere implikazioa eskatu izan dute.

Orain arteko araudiak lez, berriak ere ez ditu gustura utzi erabiltzaileak eta erakundeak. Ez luke maiztasunik handituko, adibidez. Horregatik, kontrako alegazio ugari egin zituzten udalak, herritarrek eta elkarteek.

Durangoko Udalak ere kexa partikularrak jaso ditu, gero zuzenean Arabako Foru Aldundira eramateko. Gainera, www.change.org atarian ere sinadura bilketa herritarra egin dute, erakundeak koordinatu daitezela eskatzeko. 549 lagunek sinatu dute dagoeneko.

Munduko Arrozak jaia ospatuko dute, aniztasuna aldarrikatzeko

DURANGO M.O. Durangon ere ospatuko da Munduko Arrozak jaialdia, bihar. Dagoeneko hamaika urte dira Bilboko San Frantzisko auzoan aniztasuna aldarrikatzeko eta integrazioa sustatzeko topaketa gastronomiko hori sortu zenetik. Durangon, seigarren edizioa izango da aurtengoa.

Ezkurdin izango da topaketa. Partaide bakoitzak bere erara egingo du arroza, eta 12:00etarako aurkeztu behar dute. Tailerak ere prestatu dituzte eguerdirako, eta batukadak giroa animatuko du. 14:30ean bazkalduko dute, eta ostean diploma banaketa etorriko da. Gero, dantza saioagaz, musikagaz eta txokolatadagaz jarraituko du jaialdiak.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko ekainaren 20a,
12. urtea - 550. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalao Fuertes.

“Pochutan ia emakume guztiok sufritu dugu genero indarkeria”

Pochutako (Guatemala) emakumeen egoeraz berba egingo dute gaur



Corona eta Pichillá, gaurko aurkezpena iragartzeko prentsaurrekoan.

DURANGO Markel Onaindia Bateginez gobernuz kanpoko erakundeak lankidetzan dihardu Pochutako (Guatemala) Ap-sadec elkarteagaz, eta bertako kide bi Durangora etorri dira, emakumeek han bizi duten egoeraz berba egiteko. Lidia Corona eta Paula Pichillá dira leku-koak. Coronak azaldu du indarkeria matxista kasuak ohikoak direla, bizitzaren parte moduan ulertu izan dituztela: “Pochutan

ia emakume guztiok sufritu dugu genero indarkeria”. Diagnostiko bat aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, Elkartegian.

Emakumea guztiz azpiratuta bizi da Pochutan. Ama eta etxekoandre izateko prestatzen dituzte txikitatik; eskolara joan beharrean, etxeko lanetan hezten dituzte, adibidez. Eta horri indarkeria gehitu behar zaio. Ez dute herriko datu ofizialik, baina egoeraren erakusle, Gua-

temala osoan 755 emakume hil zituzten iaz. Kasu asko ez dira erregistratzen, eta andre gehienek ez dute salatzen, batez ere dependetzia ekonomikoagatik.

Coronaren arabera, emakumeak ez dira eskubideez kontziente izan, eta horri buelta eman gura diote. Jabekuntza saioak jaso dituzte, eta neskak eskolaratzen dabilta. Autola-guntzaz gainera, presioa ere egingo dute kasuak argitzeko.

Jardunaldia antolatu du EH Bilduk etxebizitza politikari buruz

DURANGO M.O.

Datorren eguaztenean, hilaren 25ean, etxebizitza politikaren inguruko jardunaldia egingo du EH Bilduk. 19:30ean hasiko da, Ezkurdin, eta Kaleratzerik Ez eta Elkartzen kolektiboetako ordezkariak egingo dute berba.

Antolatzaileen hitzetan, ber-baldi laburrak izango dira, eta ostean eztabaida zabalduko dute entzuleen artean, iritziak eta proposamenak jasotzeko. EH Bilduk ohartarazi du Durangon ere etxe kaleratzeak agintzen direla.

Azoka ereduaz hausnartu behar dela dio Jaurlaritzak

Gerediagak eta Jaurlaritzak batzarra egingo dute

DURANGO Jone Gunetxea

Joan zen astean, Gerediaga Ekarteak Legebiltzarrean egingo dako agerraldian Eusko Jaur-laritzari babesa eskatu zion egun-go azoka premiazko egoeran dagoela azalduz. Joxan Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak eguaztenean azaldu zuenez, inork ez du zalantzan jartzen Durangoko Azokak duen garrantzia. “Baina denon artean hausnartu behar dugu ea egun martxan den azoka eredu-a ote den behar dugun eredu, eta nola bideratu behar den eredu-

horren finantzaketa”, adierazi zuen Muñozek. Datorren astean bilduko dira Gerediagako ki-deak sailburuordeagaz.

Azokako arduradunen babes eskaeraren aurrean, martitzenean, EH Bilduk legez besteko proposamena aurkeztu zuen Legebiltzarrean, baina ez zen aurrera irten. “EAJk, PSegaz eta PPgaz bat egin du, EH Bilduk aurkeztu duen ekimena urgentziaz tramitatzeke eskaera ez onartzeko Legebiltzarreko Mahaian”, kritikatu zuen koalizioak.

Irregularitasunak salatu ditu LABek autobideko obretan

Gerediaga-Elorrio bideko obra bisitatu du LABek

DURANGALDEA M.O.

Gerediaga-Elorrio autobideko obretan irregularitasunak daude, LABen arabera. Obrak bisitatu dituzte sindikatuko ordezkariak, eta adierazi dute bertan azpikontrataturako enpresetan ez dela betetzen Bizkaiko erai-kuntza sektoreko hitzarmena. Hainbat arrazoi argitaratu ditu hori argudiatzeko. Eguneko jarduna luzatzen dietela eta atsedendietan beharra egiten dela kritikatu du LABek: “Horrela ez da betetzen urte hasieran sindikatuen eta patronalaren artean sinatutako lan egutegia”. Gainera, soldatak ere hitzarmenean aurreikusitakoak baino txikiagoak direla ohartarazi du. Soldatekin lotuta, kotizazioetan balizko iruzurrak egon daitezkeela ere esan du sindikatuak.

Baldintza horietaz gainera, LABek gogoratu du apirilaren 3an behargin bat zauritu egin zela tunel batean, eta helikopteroz eraman zutela Galdakaoko ospitalera. “Horrelako gertakari-aren aurrean, LABek bere kezka azaltzen du lan osasuneko eta

segurtasuneko neurriak ondo aplikatzen ote diren”.

LABen ustez, egoeraren erantzukizun nagusia azpikontrataturako enpresetan dago: “Irabazi handiak eta arin lortzeko grinagatik, lan baldintzak ezegonkor-tu egiten dituzte”. Sindikatua-ren arabera, enpresek “gerizpe-

LAB: “Irabazi handiak eta arin lortzeko grinagatik, lan baldintzak ezegonkortzen dituzte”

ko peaje” bidez kobratu behar dute obragatiko zati bat, eta 30 urtez gestionatuko dute autobidea. “Obra zenbat eta lehenago amaitu, orduan eta lehenago hasiko dira kobratzen”.

Bestalde, Aldundiaren ardurara ere badela uste du LABek, obraren kontratatzailea delako. “Enpresen diruzalekeriaren aurrean administrazio publikoak langileen eskubideak babestu behar ditu”.

Amaitu dute Esperientzia Institutuko ikasturtea

Hemezortzi lagun egon dira Esperientzia Institutuan

DURANGALDEA M.O.

Hemezortzi lagunek parte hartu dute aurten Amankomunazgoak eta Durangoko Udalak antolatutako Esperientzia Institutuan. 55 urtetik gorako herritarrei eskainitako ikastaroa izan da, eta, antolatzaileen esanetan, esperientziak bateratzea eta nagusien arteko gune berriak sortzea izan da helburua. Urtarrilean ekin zioten ikasturteari, eta 38 orduko iraupena eduki ostean amaitu dute.

Gaurko munduak bizitzeko giltzak izenburupean garatu

dute ikastaroa. Gai ugari jorratu dituzte: nagusien taldeen egoera, bilakaera soziologikoa eta teknologikoa, hazkundera, garapen pertsonala edota historiaurreko gizakien garapena. Metodologia parte-hartzailea erabili dute, eta, eskola teoriokoez gainera, irteerak ere egin dituzte. Esate baterako, IK4-Azterlan ikerketa zentroa bisitatu dute, eta Gerediaga Elkarteko kideekin Merioaren ibilbidea osatu dute. Hurrengo ikastaroan parte hartzeko, 946 232 522 telefonora deitu behar da.



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

MATRIKULA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzeritarrentzako gaztelania
- II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)
- DBHko graduatua

Beste jarduera batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenerdik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA EPEA ZABALIK EKAINAREN 16tik 30era eta IRAILAREN 1etik 15era

Eguzkiaren aroaren etorrera ospatuko dute San Joan bezperan

Astelehenean, suaren bueltan egingo dituzte ospakizunak herririk herri



Sanjoanetako suaren tradizioari eutsiko diote aurten ere. Iñaki Irazabal.

DURANGALDEA M. Onaindia Badator uda, eguzkiaren aroa. Antzina hasi ziren sasoi aldaketa hori ospatzen, eta ekintza paganoa tradizio bihurtu zen. Gerora kristautasunagaz lotu

arren, gaur egun ere sinismen eta ideia guztietako herritarrak batzen dituen jaia izaten jarraitzen du. San Joan bezperagaz, eguzkiaren aroaren etorrera ospatuko dute suaren bueltan.

Durungaldean makina bat su pizten dira 23 gauean, auzo zein herriguneetan. Durangon, Herria auzo elkarteak antolatuko du 22:15ean, San Roken. Aurretik txaranga ere ibiliko da. Elorrion, plazatik San Joanera igoko dira 16:30ean, paila-zeokin merendola egiteko, eta, 22:00etan, San Roke inguruan elkartuko dira surako. Abadiñon, auzorik auzo egingo dute. Traña-Matienan, adibidez, 21:30ean batuko dira. Zornotzan, ostera, udalak antolatutako sua 22:30ean isiotuko dute, Nafarroa kalean, eta San Joanen, aldiz, sua, akelarrea eta musika eskainiko ditu AEK-k, 22:30ean.

Iurretan, afaria egingo dute plazan, 20:00etan, Luhartzen erromeria eta gaztetxeoen antzerkiagaz. Mallabian, txitxiburduntzia daukate 20:00etan, eta 22:00etan sua. Zaldibarren, Olazarren egingo da jaia, 22:00etan; Mañarian, 20:00etan; Izurtzan, 18:30ean, Santo Tomas parkean; eta Berrizen, 21:30ean, Berrizburun. Bestalde, Garain eta Axpen jaien harira ospatuko dute.

III. Berdintasun Plana jendaurrean aurkeztuko dute, ekainaren 25ean

Planaren diseinuan hainbat eragilek jardun dute

MALLABIA Jone Guenetxea Datozen lau urteetara begira, Mallabiko III. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plana aurkeztuko dute ekainaren 25ean, 18:00etan, kultur etxean. Planaren diseinuan herriko elkarteek eta taldeek ekarpenak egiteko aukera izan dute. Prozesu horren ondoren, datozen urteetan garatuko diren plangintza eta ildoak ezagutaraziko dituzte. Ekimen honekin emakumezkoen eta gizonezkoen ar-

teko parekidetasunaren aldeko konpromisoa berretsi gura du udalak. Era berean, interesa duten herritarrek Berdintasun Kontseiluan parte hartuko dute.

Interesa duten herritarrek Berdintasun Kontseiluan parte hartzeko aukera izango dute

Lazkao Txikiren bertsoak abestuko ditu Amurizak Goitan

MALLABIA Jone Guenetxea Astelehenean, arratsaldeko 19:00etan, Goita auzoko jaiei hasiera emango diete, txopoa jasota eta San Joan suekin. Barikuan, ekainaren 27an, gaueko 22:00etan auzo afarian bilduko dira. Jubiletxean edo Zumarra elkartearen eman daiteke izena (15 euro).

Xabier Amurizak alaituko du afalostea *Lazkao Txiki, batabateko sorgina* ikuskizunagaz. Amurizak Lazkao Txikiren disko antologikoa kaleratu du, eta bertako abestiak eskainiko ditu.

Eskola kirolean euskara erabiltzea saritu dute

Entrenatzaile euskaltzaileen lana aitortu dute

BERRIZ Amaia Ugalde Umeen aisialdian euskara bultzatzeko asmoz, udaleko Euskara Sailak eta guraso elkarteak eskola kiroleko hizkuntza ohiturak aztertu dituzte, eta euskararen aldeko jarrerak saritu. Eskolako jaien aitortza berezia egin zieten Xabat Olariaga, Ainara Arco eta Ander Gutierrez entrenatzaileei.

Entrenamenduetako hizkuntza ohiturak aztertzerakoan, gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania dela ohartu dira. Hizkuntza aukeratzeko orduan entrenatzaileen borondateak

duen garrantzia azpimarratu dute. Olariaga eta Arco saskibaloia entrenatzaileak dira, eta Gutierrez multikirolekoak. Euren lana nabarmendu dute Euskara Saitetik: "Entrenatzaile horiek azalpenak euskaraz emateaz gainera, umeek gaztelaniaz egiten dietenean eutsi ere egiten diote euskarari". "Zoritxarrez, oraindik ume askok aisialdia gaztelaniaz lotzen dute".

Oraindik aurrera urtero aztertuko dituzte hizkuntza ohiturak, eta udalak baliabideak ipiniko ditu eskola kirolean euskararen erabilera bultzatzeko.



Berrizko alkatea Ander Gutierrez eta Ainara Arco entrenatzaileekin.

Pagotxak prest ditu udalekuak, kirola, antzerkia eta artea ardatz

BERRIZ A.U.

Eskolak amaituta, Berrizko umeek eta gaztetxoek hainbat udaleku izango dituzte herrian bertan, Pagotxa aisialdi taldeak antolatuta. Datorren asterako antzerki udalekuak antolatu dituzte LHko eta DBHko ikasleentzat, eta goizak antzerkiari buruz ikasten pasatuko dituzte.

Ekainaren 30etik uztailaren 3rako asterako kirol udalekuak eta udaleku artistikoak prestatu ditu Pagotxak HHko eta LHko umeentzat. Goizeko eta arratsaldeko txandak izango dituzte.

Gabiola kalean aldatuko dute argiteria hurrengo fasean

BERRIZ A.U.

Herriko argiteria publikoa aldatu, eta kontsumo energetikoa murrizteko argia ipiniko dute Gabiola kalean. Herri osoan egiten dabilzan aldaketen hirugarren fasea izango da Gabiolakoa. Berrogeita hamar farola baino gehiago aldatuko dituzte, zutunik daudenak eta horma kontrakoak.

Led teknologiako farola berriak ipintzeak 83.000 euroko gastua izango du. Bizkaiko Foru Aldundiak 48.000 euroko diru-laguntza eman dio udalari.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!





**LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO**



**Oliba-Olio
Birjina Estra**
Aceite de Oliva
Virgen Extra

Oliba olio birjina estra

Eusko Labela duen oliba olio birjina estra Euskadin ekoiztu, landu eta ontziratzen da. Araudi batek goi-mailako kalitatea bermatzeko baldintzak zehazten ditu, eta, horri esker, laborategietan nahiz dastaketetan asko baloratzen diren ezaugarri organoleptikoak ditu.

Haren jatorria Arroniz barietateko olibak dira. Horiek heltze-punturik onenean biltzen dira, olioak berezko eta zentzumenezko ezaugarriak gorde ditzan.

Hotzetan erauzten da, produktua aldatuko ez duten prozeduren bidez. Ondoren, egon li-

tezkeen zikinak dekantazio naturelez garbitu, eta temperatura kontrolatuan biltegitratzen da, degradazioa saihesteko moduan.

Lan horri guztiari esker, profil orekatua eta ñabardura gama zabala lortzen da.

Horrela identifikatzen da

Eusko Labeldun oliba olio birjina estra tindatutako 50 cl-ko beirazko botiletan merkaturatzen da, eta Eusko Labelen irudia duen kontrol-etiketa zenbakidun baten bidez ziurtatzen da haren kalitatea eta benetakotasuna.



**Euskal
Letxuga**
Lechuga del
País Vasco

Euskal letxuga

Ekoizpen lekuaren eta kontsumitzen den tokiaren arteko gertutasuna dela-eta, Eusko Labeldun letxugak fresko iristen dira beti gure merkatuetara. Gure baserrietan ingurumena errespetatuta ekoizten dira, eta soilik Eusko Label bezala aukeratzen eta identifikatzen dira araudia errespetatzen dutenak.

Horrela identifikatzen da

Euskal letxuga banaka merkaturatzen da, ingurunetik babesten duen poltsa baten barnean; garbituta, txikituta eta jateko prest ere aurki daiteke, 140 g-ko poltsetan. Bi kasuetan kontrol-zenbakia eta Eusko Labelen logotipoa darama.



Egin zaitez ANBOTOren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero ANBOTOren lagun eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkartearen ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta ANBOTOren lagun figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da

ANBOTOrentzat. Lagun-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, karpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, ANBOTOren lagun egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, anboto@anboto.org helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzeko aukera duzu; ANBOTOri babesa emateaz batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

@	☎	✉
anboto@ anboto.org	946 816 558	Izen-deiturak Helbidea / Herria Posta kodea Telefonoa Anboto komunikabideak - DHK Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA



**ANBOTO lagunen
artean Eusko Label
produktuen otzarak
zozkatuko ditugu**

**anboto
lagunak**

hazi
LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

anboto

Oinezkoek eskolaraino egiten duten ibilbidea hobetzeko lanak

Herriguneko hiru lekutan egingo dituzte espaloiak zabaldu eta babesteko lanak



Gaur egun falta den lekuan, Bekoetxe parean, espaloia egingo dute.

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Euskal Herria eta Santa Isabel kaleen artean oinezkoentzako ibilbidea hobetzeko lanak egingo dituzte datorren astean. Asier Salaberria udaleko arkitektoak azaldu duenez, lanak aste baten buruan amaitzea da aurreikuspena. Hirigintza Planaren berrikuspenerako egin dituzten tailerretan herritarrek sarritan egindako eskariaren bidean obra hau “pauso bat” da, Salaberriaren hitzetan. Arantza Baigorri alkateak azpimarratu du, hirigintzari oinezkoen ikus-puntutik begirarata, hobekuntzak egiteko beharra dagoela.

Eskolarako bidean, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea da lanen helburua, “eskolaraino oinezkoen ibilbide seguru bat sortzea”. Izan ere, gaur egun etenak daude ibilbide hori oinez egiteko –espaloia amaitu egiten da inguru batzuetan, aparkatutako kotxeek oinezkoen bidea apurtzen dute eta bidegurutzeak daude–. Jendeak ohitura hartu du errepidetik ibiltzeko.

Asier Salaberriak nabarmendu du “hirigintza errealitatera moldatu” gura dutela obragaz, “bide naturalak” aintzat hartuta. “Sarritan, planoetan egiten denak ez du balio egunerokotasuneko beharrei erantzuteko”.

Herriguneko hiru lekutan egingo dituzte obrak: Gortazar kalearen eta Euskal Herria kalearen bidegurutzetik Santa Isabel kalerako ibilbideko 200 metroko luzeran.

Oinezko askok bidea zebra bidetik barik beheragotik igarotzen duela ikusita, zebra bidea zabalduko dute Gortazar eta Euskal Herria kaleen bidegurutzean: 5 metro handituko dute. Bestalde, gaur egun falta den lekuan, espaloia egingo dute Bekoetxe parean. Horretarako, eta autoak abiadura mantsotzera behartzeko, errepideari sobera daukan espazioa kenduko diote.

Alkateak eta arkitektoak azaldu dutenez, 8.900 euroko aurrekontua izango dute lanek (seinaleztapenerako 2.900 eta asfaltatze lanetarako 6.000).

Orobiogoitia eskola jasangarria izango da beste hiru urtez

IURRETA Amaia Ugalde

Juan Orobiogoitia institutuak Eskola Jasangarriaren ziurtagiria berriztea lortu du. Duela hiru urte jaso zuen izendapena Iurretako ikastetxeak, ingurumen arloan lanketa berezia egiteagatik, eta beste hiru urtez luzatu dio ziurtagiria Eusko Jaurlaritzak.

Ziurtagiria berrizteko, hiru urte hauetan egindako hobekuntzak aurkeztu behar izan dituzte, eta ikuskaritza egiteko bisita ere jaso dute. Lourdes Totorikagena Agenda 21eko arduradunak azaldu duenez, urteotan, besteak beste, Iturburuko ortu ekologikoetan lanean hasi dira, jantokiko hondakinekin konposta egiteari ekin diote, gero ortuetan erabiltzeko, eta ingurumenari buruzko dokumentalak partekatu dituzte familien artean.

Ekainaren 28an 29. urteurrena ospatuko du jubilatutako elkartek

IURRETA A.U.

Urtero legez, elkartearen urtemuga ospatzeko bazkaritarako elkartuko dira Goiuriako Ama jubilatuen elkarteko kideak. San Pedro egunaren bueltan egiten dute bazkaria, eta, aurten domekaz izango denez, bezperan, ekainaren 28an egingo dute. Izena emateko azken eguna datorren eguaztena izango da.

Momentu honetan 270 bazkide inguru ditu Iurretako jubilatuen elkartek. Iaz 60-70 lagun elkartu ziren urteurreneko bazkarian. Bazkideez gainera, bazkide ez direnak ere gonbidatzen dituzte; bazkideentzat 24 euro balio du bazkarirako txartelak, eta bazkide ez direnentzat, berriz, 28. Bazkalostean dantzaldia izango dute, Iñaki Uribesalgoren doinuek lagunduta.

Irudi korporatiboa berritzeko lehiaketa abiatu du udalak

Irailaren 26ra arte aurkeztu daitezke lanak udalatxean; irabazleak 600 euro jasoko ditu

OTXANDIO Joseba Derteano Azkenengo udalbatzarrean aho batez onartutako erabakiari jarraituta, udalak bere irudi korporatiboa berritzeko lehiaketa abiatu du. Irailaren 26ra artekoa da lanak aurkezteko epea, eta irabazleak 600 euro jasoko ditu.

Udalak hainbat euskarritan erabili dezake irudi korporatiboa (gutunetan, aldizkarietan, multimedia euskarrietan...), eta diseinu lanek aldagai horiek hartu beharko dituzte kontuan. Gainera, irudien erabilera azaltzen duen eskuliburua ere aurkeztu beharko da; esaterako, euskarri bakoitzean irudia nola erabiliko den azalduko duena.

Irudiaren gaia edo diseinua librea izango da, baita berai lantzeko teknika ere. Epaimahaiak

kontuan hartuko ditu erreferentzia arkitektonikoak, historikoak edo artistikoak. Iku-rrak idazki hau hartu behar du: *Otxandioko Udala*. Era berean, erabakia hartzerako orduan

Epaimahaiak kontuan hartuko du udalerraren izaera adierazteko irudiak duen gaitasuna, esaterako

proposamenaren originaltasuna, udalerraren izaera adierazteko gaitasuna zein irakurtzeko eta identifikatzeko erraztasuna ere kontuan hartuko dituzte, besteak beste. Oinarri guztiak www.otxandio.net webgunean jaso daitezke.

Elkarteentzako diru-laguntzak ordenantza bidez erregulatu dituzte

ATXONDO J.D.

Herriko kultur, kirol zein aisialdi elkarreentzako diru-laguntzak erregulatzen dituen ordenantza onartu zuten aho batez azken udalbatzarrean. Orain arte ez zegoen ordenantzarik, eta, aurrerantzean, irizpide zehatzak jarraituta eta hein batean puntuaketa bidez banatuko dituzte diru-laguntzak. Guztira 20.500 euroko diru atala gorde dute. Horrela, euskara sustatzeko eta normalizatze ahalegina, eta aukera berdintasun irizpideak hartuko dira kontuan, esaterako.

Bestalde, astean hasi dituzte Barraski baserrirako urbanizazio lanak. Inguruan eta aurrealdean belarra ereingo dute, eta atzealdeko eraikinak hesi batekin itxiko dituzte. Hil eta erdi iraungo dute lanek.

GAILU ELEKTRONIKOAK vs. IRAKURKETA (1)

Aspalditik hezkuntza mailan irtenbiderik ematen ez zaion eta, zoritxarrez, denboraren joanean egunetik egunera okerrera besterik egiten ez duen arazo larrietariko bat, [agintarien, irakasleen, hezitzaileen eta gurasoen artean berezitasunez urduritasun eta artegatasun handia sortuz] irakurketa-ohituretan etengabe nabaritzen den heziketa-hutsune handia dugu.

Ikasleen irakurketa-gaitasuna aspaldiko urteetatik oso urria dena gauza jakina da. Gizartean eta, berezitasunez, hezkuntza sisteman [irakasle, guraso, ikasle etab.] errealtate hori horrela dena erabat onartzen den arren, egoera larri hori errotik aldatu eta hobetzeko ezer gutxi egiten da, ezer ez esatearren.

Arazoak ez dira berez kontontzen eta irakurketa-gaitasunak ez dira jarduera berdinak egiten jarraituz atontzerik izaten. Ikastetxeek gabezia horren jakitun eta lekuko izanik, ezer gutxi egiten dute.

Irakurketa gaitasunetan ikasleek ulermenik ezagatik, irakurketa geldoagatik, gelan besteengandik irakurketa maila atzeratua duelako edota antzeko arazoak azaltzen dituztenetan, ikastetxeetan, oro har, irtenbideak asmatu eta egoerak bideratu beharrean, arazoa gurasoen esku jartzen dute eskolatik at konponbiderik aurkitu behar dutela adieraztera emanez.

Bitartean, ikasleek, irakurketaren gabezia hori, besteak beste, bitarte izanik euren ikasketetan urterik urte gero eta eragozpen gehiago dituzte. Horren guztia ondorioa, ikasketetan arrakasta gutxi edota "ez gai" ugari izatea izaten da.

Hala eta guztiz ere, errealtate gorria dugun arazo larri horretan irakurketari ez zaio inolako garrantzirik ematen, ez da ikasleei irakasten zaien irakurketaren eraginkortasunaz

ez ulermen mailaz gogoeta sakin egiten.

Seme-alabek duten irakurketa mailari ez diogu erreparatzen harik eta arazo larriak [eta orduan oso berandu izaten da] agertzen hasten diren arte eta aipatu guztia ondoz erabat garrantzitsua den hurrengo arloa albo batera uzten da: **irakurle eraginkorrek prestatzea.**

Seme-alaben irakurketa ohi-turarik ezaz arduratuta dagoen guraso bati galdeginez jasoko genituzkeen erantzunen artean, honako hauek lirakeke: *"Ipad-a, tableta, bideojokoak, telebista, interneta etab, irakurketa baino gustukoago ditu"*, *"denbora asko ematen du gailu elektronikoen, ia ezerez irakurtzen"*, edota *"nire semeak ez du irakurtzea gogoko"*, *"irakurtzea aspergarria da"*, *"irakurtzen du baina ez du gutxi besterik ulertzen"*; *"irakurritakoaren ulermenik ezagatik matematiketan ere arazoak ditu"*, *"ez du irakurtzen telebista asko ikusten duelako"* edo etab.

Gorago aipatutako adierazpen horietan, bestalde, ez da nabarmentzen orain arte eskolatan irakurtzen irakatsi izatean erabilitako metodologia zaharkituak irakurle geldoak, motelak, ulermen urrikoak eta eraginkortasun gutxikoak hezi dituenaren aipamen txikiena ere egiten, nahiz eta gurasoak, gehienetan, seme-alaben abiadura eta ulermena erabat motel eta urria, hurrenez hurren, direna aitortu.

Irakurketa, ahaleginaren eta emaitzaren arteko ekuazioa da. Informazioa jasotzeko hautatzen dugun formatua (liburua, aldizkaria, egunkaria, telebista, irratia etab.) komunikabide jakin bat erabiltzeak eskatzen digun dekodifikazio-ahaleginaren eta eskuratu dezakegun onuraren arteko erlazioaren arabera-koa izango da.

Haurrek, jaiotzean, ino-

lako gaikuntzarik ez aurretiazko saiakera berezirik gabe, telebistako irudiak dekodifikatzen hasten direnean, naturaltasun osoz informazioaren eta jolasaren munduan sartzen dira, entretenimenduaren arloan.

Bost urtetik zazpita bitartean gauzatzen den irakurtzen ikasteko ekimena gizakiaren bizitza guztian zehar burmuinak egiten duen ahaleginik handiena da. Beraz, helburu zehatzik ezarri gabe eta gidatutako esfortzurik gabe ez dugu inoiz ikasleak irakurle eraginkor izatea lortuko.

“**Gizarte aurreratu honek izan duen bilakaerak patologia berri bat sortu du: eskola porrota**

Haurra, sei urteko gaztetxoak izatera iritsitakoan, ikastetxean irakurketaren hasierako urratsak ematen hasten denean, irudiak jaso eta gogoratzeak erraztasunarekin alderatuz gero, ikaragarriko ahalegina eskatzen dion jardura-mentala egin behararen aurrean aurkitzen da.

Umeen garapenean, **"ahaleginik txikiaren legea"** aplikatuz, euren jarreraren ikusmen-ekintzek [Ipad-a, Tablet-a, Ordenagailua, Wii-a, Bideojokoak, Nintendo, etab.] erabateko

“**Umea, metabolizatzerik ez duen gehiegizko estimuluen aurrean, bakarrik eta etengabeko artegatasun egoeran aurkitzen da.**

lehentasuna izaten dute irakurketa-ekintzengan, eta gertaera horrek umeek dituzten trebetasun, oldozmen eta ikaskuntza azterna kaltegarri ugari uzten du, jarduera intelektual nagia eta motela izatean garbi eraginez.

Gailu elektronikoen edota irudi bidezko informazioa erabiltzeko ohitura duen umearen kanpo-jarrera edota itxura la-saitasunezkoa izaten da baina hiperjarduera, hiperestimulazioa edota hiperkonektibitatea izaten da oldozmen mailan. Arreta-gabezia duten umeek, gailu elektronikoen jarduteari uzten diotenean arreta jartzea oso zail egiten zaie.

Hiperjarduerak, umeek kontrolatu ezin izaten duten eta izatez kontrolatzea oso zaila izaten zaien "buru-astindua" eragiten du.

Umeentzako, euren bizipen-tan oinarritutako ikaskuntza-oren orde gailu elektronikoen erabileraren bitartez ikastetxeetan bakarrik ez eze gizartearen arlo guztietan ere nagusituz doan ikaskuntza birtualaren gero eta hedapen handiagoaren ondorioetako bat, luzarora, kalterako izango da.

Hezkuntza-arloan mundu mailan aurrekari ditugun herrialdeen helburua oinarri oso sendoak jartzean datza, larregi izan gabe benetan jaso eta bizi izandako ekintzetan oinarritua. Oinarri horiekin gazteak ezagutza askoz zabalagoa lortzeko benetako tresnak izango dituzte. Gazteek ikasketak prozesuan gozatuz ikasten dutenean, apurka-apurka, norbere bizipenekin gitxika-gitxika gauzatzen joanez, jakintzak sustrai sakonago, luzaroagorako eta osasuntsuagoak izaten ditu. Etorkizunean lan egiten irakasteko funtsezko oinarria da.

Ikasturtean diren ikasgaiak gaintzea helburu bakar bezala baldin badugu eta helburu dugun hori seme-alabei ikusarazten baldin badiegu [eta gehienetan horrela izaten da], ikas-prozesua, ikasketak eta ikas-jardueraren bizipena gogotsu, metodologiaz, jakin-minenez eta ezagutzak gehitzeko asmoz ekiten ez bada, berandu baino arinago azalduko dira

desmotibazioa, gogorik eza eta frustrazioa. Are gehiago helburua zaila baldin bada edota lortutako emaitzak aurreikusitakoak ez baldin badira. Gailu elektronikoen erabilerarekin, gazteek berehalako erantzunak eta informazio asko lortzen dute baina, aldiz, ezagutzaren osoko garapenerako zutabe nagusi eta funtsezko oinarri diren behaketa, esperimentazio, azterketa eta jakin-mina albo batera uzten dituzte.

Irakurketari dagokionez, gizakiaren burmuinak, informazioa, bi eratarik prozesatu dezake: sekuentzia bidezko prozesatzea eta aldi bereko prozesatzea. Informazioa jasotzeko darabilgun erritmoak lehenengo edota bigarren prozesatze modua erabiltzea dakar.

Irakurketaren kasuari dagokionez, informazioaren erritmoa irakurleak berak zehazten du. Irakurgai batean hitzak estatikoak ditugu eta oldozmen logikoa eratzen duen atal gisa sintaxi zuzenez eta orden jakin batez azaltzen zaizkigu. Irakurlea gelditu egin daiteke edota irakurritakoa nahi beste bider irakurri dezake.

Irudiaren kasuan, aldiz, informazioaren erritmoa komunikabideak berak [eta ez ikusleak] ezartzen du. Ondorioz, ikusleak telebistan programa jakin bat ikusteari uzten baldin badio, argudioak edota programak, ikuslearen borondatea gorabehera, aurrera jarraituko du. Aipatutako desberdintasun horrek gogoeta-mota, jokabide, jardura eta izaera erabat desberdinak sortzen ditu.

Sekuentzia bidezko prozesuak gogoetazko oldozmenean trebetasuna sorrarazten duen bitartean, aldi bereko prozesuak jarrera eta jokabide oldarkorra besterik ez du sortzen.

Egungo gure gazteen jokabideak azaltzean, gogoetara baino oldarkerirako joera nabarmena daukan belaunaldi baten aurrean gaudela adierazi beharra dago. Hurrengo artikuluan azalduko dugu horren inguruko jakingarririk.

Gorka Aurre
PRAKAGORRI

PRAKAGORRI IKASTARO TRINKOAK UZTAILA & ABUZTUA

MATRIKULA
UZTAILAREN 4ra arte

ULERMEN JASOKO IRAKURKETA

IKAS-METODOAK [11-15 URTE]

Uztailak 1 - Uztailak 11
Uztailak 14 - Uztailak 30
Uztailak 1 - Uztailak 30
Abuztuak 1 - Abuztuak 14

Uztailak 1 - Uztailak 11
Uztailak 14 - Uztailak 30
Uztailak 1 - Uztailak 30
Abuztuak 1 - Abuztuak 14

irakurri 4
ALDIZ ARINAGO

**EMAITZA
HARRIGARRIAK!**

PRAKAGORRI
Reading Skills
94 491 57 63
DURANGO
Barrenkalea, 20
prakagorri@prakagorri.es

Atzerriko adin txikiko gazteak hartzen zituen Izurtzako zentroa itxiko dute

Zazpi urtez egon dira Izurtzan; urte hauetan herritarren aldetik jasotako "harrera ona" eskertzeko hainbat ekitaldi prestatu dituzte sanjoanetan



Etxaburu dorrearen ondoko baserrian egon dira orain arte gazteak.

IZURTZA Joseba Derteano Etxaburu dorrearen ondoan dagoen zentroak adin txikiko atzeritarren hartu ditu 2007tik hona. Landalan elkarteak kudeatu du zentroa, eta gazte horien gizarteratzean eta emantzipazioan lan egitea izan du helburu. Ekainaren 30ean itxiko dute zentroa. Pablo Amezaga Izurtzako eta Zornotzako zentroetako pedagogia zuzendariaren esanetan, "Bizkaira heltzen den adin txikiko atzeritarren kopurua urterik urtera jaisten ari da, eta horregatik erabaki dute ixtea". Gazteak emantzipazio pisuetan kokatuko dituzte.

Izurtzan egon diren zazpi urteetan "herritarren partetik oso

harrera ona jaso dugu, sekula ez da arazorik sortu", eta sanjoanetarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte, esker ona adierazteko. Ekainaren 23an, 18:30ean, gaztelu puzgarriak ipiniko dituzte Santo Tomas parkean. Esker ona adierazten duen plaka bat ere egin dute Izurtzari emateko. Azkenik, gazteen eta monitorean artean kozinatutako bildotsa banatuko dute bertaratutako artean.

Zentroa hutsik dago astelehenaz geroztik, baina, dena garbitu eta txukundu ostean, hilaren 30ean itxiko dute ofizialki. Eraikina Aldundiaren jabetzakoa da. 12-17 urte arteko gazteak egon dira han: "Ez dakigu kopuru zehatza zein den, baina gehienez hogeitaz hamar izan da, eta azken aldi hamar egon dira". Izan ere, azken urteetan ia erdira jaitsi da Bizkaira heldu den gazte atzeritarren kopurua: "2007an 400dik gora heldu ziren, eta iaz 243", adierazi du Amezagak.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Erabakitze eskubidea

Lehendakariak ere erabakitze eskubidea du. Era horretan, ekainaren 8an Gure Esku Dago ekimenak antolatutako giza katera ez joatea erabaki zuen. Euskal gizartearen ordezkari gisa ez zuen komenigarri ikusi bertan egotea. Tira, askotan esaten da lehendakaria herritar guztien lehendakari dela, baina horrek, esaldi borobila izateaz gain, ez dauka sinesgarritasun handirik; hain zuzen, ezinezkoa baita 2 milioi biztanleren ordezkaria egoera guztietan eta momentu guztietan izatea. Eta hor jakin egin behar da zein den ordezkatzeko duzun herriaren gehiengoaren nahia.

Lehendakariak Espainiako erregearen koroatzean ez egoteko erabakitze eskubidea ere bazuen. Bertan egotea ez zen derrigortasun legal bat. Bertan egoteko erabakia hartu zuen. Zertarako? Auskalo! Beharbada, Espainiako herritarrek, banderaz josita, errepide ondoetan betetzen ez zituzten hutsuneak betetzeko.

Lehendakariak Espainiako erregearen koroatzean ez egoteko eskubidea ere bazuen

Hilabete batean bi erabakiok hartu ditu lehendakariak. Ez dut uste erabaki horiek Espainiatik at geure proiektua eraiki nahi dugun euskal herritarrok ordezkatu gaituenik. Gehiengo gara? Ez gara? Argi daukat Madrilen Francok inposatutako erregearen semearen koroatzean egotea nahi zutenak baino askoz gehiago gara.

Ingurumen arloko Urrezko Erratza jaso du Zornotzak

Hondakin organikoaren kudeaketagatik saritu du ATEGRUS elkarte teknikoak Zornotzako udalerrria

ZORNOTZA J.D.

Ingurumenaren alorreko ATEGRUS elkarte teknikoak Zornotzako udalerrria saritu du bosgarren edukiontzia herrira zabaltzen egindako ahalegin eta lanagatik. Zornotzako alkate David Latxagak eta Ingurumen Saileko zinegotzi Juan Mari

Ugaldek Urrezko Erratza izeneko saria jaso zuten joan zen astean, Madrilen egindako sari banaketa ekitaldian. Hondakin organikoaren edukiontzia jartzeko udalak abian ipinitako kanpaina nabarmendu du elkarteak. Dagoeneko 2.200 familiatik gora atxiki zaizkio ekimenari.



Zornotzako Udaleko alkate David Latxaga saria jasotzen.

Hiru aparkaleku berri herrigunean komertzioa sustatzeko

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako Udalaren eta Dendariek elkartearen arteko akordioaren bidez, herrigunean aparkatzeko 213 plaza atonduko dituzte hiru gunetan. Lehenengo prestatuko duten aparkalekua Ixer ingurukoa da, eta domeketan merkatua egiten den tokian egokituko dute. Aparkalekuak 146 plaza izango ditu, eta txandakakoa eta doakoa izango da. Bigarren aparkalekua Nafarroa zentrokoa izango da: 25 plaza bideratuko dituzte, eta txandakakoa eta doakoa izango da. Gune bi horiek irailtik aurrera egongo dira erabilgarri. Betarragane ingurua izango da hirugarren aparkalekuaren kokalekua, eta 42 plaza izango ditu. Eguneko 24 orduetan egongo da erabilgarri, eta doakoa izango da. Azarorako erabilgarri egotea da asmoa.

Comillasera egun-pasa antolatu dute jubilatuek

MAÑARIA Jone Guenetxea

Comillasera (Espainia) irteera antolatu du Mañariko jubilatuen elkarteak, uztailaren 5erako. Goizeko 09:00etan irtengo da autobusa. Sobrellano jauregia, Capricho de Gaudí eta Unibertsitate pontifizioa ezagutuko dituzte bisita gidatu bidez. Ondoren, Santanderrera (Espainia) joango dira bazkaltzera. Arratsaldean Santander ezagutuko dute. Bazkideentzat 25 euro balioko du bidaiak, eta gainerakoentzat 35 euroko salneurria izango du. Izena eman gura dutenentzat azken eguna ekainaren 28a da.

Jaien aurkezpena

Bestetik, Mañariko jai egitaraua aurkeztuko dute zapa-tuan, 19:00etan, udaletxean, eta 19:30ean kantu-poteoan irtengo dira.

IKASTEKO TEKNIKAK IKASTARO BERRIA

• irakurmena • ulermena • motibazioa • plangintza • azterketak

www.psikologo.biz

Jon Arruabarrena - Psikologoa 946 033 246
Frantzisko Ibarra, 6 (Durango) 629 245 728

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



Institutuko ikasleak, saria ospatzeko ateratako argazkian.

“Sariak ikasturte osoko lanaren ondorio dira”

Elorrioko institutuko ikasleek ekintzailetasunagaz eta ingurumenagaz lotutako sariak irabazi dituzte

ELORRIO **Markel Onaindia**
Elorrioko institutuko hainbat ikasle saritu dituzte azken asteotan, ekintzailetasuna eta ingurumenaren zainketagaz lotutako zenbait proiektu lehiaketetan aurkeztarren. Institutuan lantzen dituzten arlo bi dira, eta ekintzailetasuna curriculumean sartu dute, gainera. Horregatik, sariari baino hori lortzeko bideari eman dio garrantzia Josu Etxaburu zuzendariak: “Sariak ikasturte osoko lanaren ondorio dira”. Ikasleen lanaz aparte, irakasleen ekarpena ere eskertu du Etxaburuk.

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen Egin eta Ekin lehiaketan accesita lortu dute Iñigo Gallastegi eta Joseba Garcia elorriarrek. Sentsore biren arabera mugitzen den gurdi bat sortu dute, eta mugikortasun

arazoak dauzkaten laguntzeko balio duela uste dute: “Adibidez, erosketak kargatu, eta gurdiak eurei jarraituko die”. Tresna hori merkaturatzeko fikziozko enpresa ere asmatu dute.

Azaroan, Bartzelonara
IRAES 21 lehiaketan, Elorri bidegorria zelan ipini diseinatu dute, eta auzoetako argiztapena hobetzea ere proposatu dute. Bartzelonan egongo dira azaroan, Espainia mailako finalean. Naia Aranguren, Idoia Aiartzaguena eta Maialen Igartua izan dira sarituak.

Bestalde, Elhuyar Fundazioaren Zientzia Azokan seigarren eta zazpigarren postuetan sailkatu dira. Esate baterako, gaitasun arraroak detektatzeko txip bat asmatu dute Iñigo Gallastegik eta Leire Gutierrezek.

Elizaldeko igerilekuetan langileak behar dituzte

ELORRIO **M.O.**

Elizaldeko kanpoko igerilekuen obrak aurrera doaz, eta udal ordezkariak adierazi dute uztailearen 3an zabalduko dituztela. Gobernu Batzordean erabaki dute zein enpresari eman gestioaren ardura: BPXport izango da, kiroldegia ere kudeatzen duena. Kontratu printzipioz aurtengo udarako da, eta zerbitzu guztiak jasotzen ditu: sorospena, sarbidearen kontrola, garbiketa, mantentze-lanak, taberna eta abonuen kudeaketa. Horretarako, langileak behar ditu enpresak, eta dagoeneko zabaldu du deialdia. Gura duenak kiroldegian bertan utzi ahal du curriculum. Udalak azaldu du proiektuagaz enplegua sortu, eta ekonomia garratu gura duela.

Uztailearen 3an inauguratuko dira igerilekuak, eta egun horretan ate irekien jardunaldia

Igerilekuen obrak aurrera doaz eta udal ordezkariak esan dute uztailearen 3an zabalduko dituztela

egingo dute. Irailaren 15era arte egongo dira zabalik; enpresak gura badu, 30era arte luzatu ahal du. Hasieran proposatutako prezioak berretsi dituzte batzordean, eta abonua gaurtik aurrera hartu ahal du kiroldegian bertan.

“Zorrotzago” betearaziko dute animalien ordenantza

ABADIÑO **Itsaso Esteban**

Txakurren jabeek gorotzak batzen dituztela eta txakurrak lotuta daramatzatela ziurtatzeko, animalien inguruko ordenantza “zorrotzago betearaziko” duela adierazi du Abadiñoko Udalak. Txakurrak uhalagaz lotuta erabiltzera, eta arraza arriskutsukoak muturrekoagaz eroatera behartuko dituzte. Udal ordenantzak aurreikusten dituen isunak gogorarazi dituzte: arau-hauste arinek 30 eta 300 euro arteko isuna jaso dezakete, larriek 1.500 arte eta 15.000 arte oso larriek.

Bihar hasiko dituzte Momoitio auzoko jaiak

GARAI **M.O.**

Gaueko 21:30erako antolatu duten herri afariagaz hasiko dituzte Momoitio auzoko San Joan jaiak bihar. Jatorduaren ostean, gainera, Txominbedarra erromeriagaz gozatu ahal du.

Domekan mezagaz hasiko da egitaraua, 11:00etan. Jarraian, dantzariak eta igel txapelketa egongo dira. Arratsaldean, ostera, asto-proben txanda izango da 18:00etan.

Astelehenean, San Joan bezperan, Donien Atxa ipini, eta sua piztuko dute. Hilaren 24an amaituko dira jaiak, 11:00etan, mezagaz batera.

> DURANGALDEA ASTEON

Sexu askapenaren aldeko ekitaldiak

ERAKUSKETA > Durangon eta Abadiñon hainbat ekitaldi daude Sexu Askapenerako Astearen barruan. Ekainaren 23an, 19:00etan, bideoforum emanaldia dago Durangoko Pinondon. Abadiñon *Homofobia, lesbofobia eta transfobia aurpegiak* kale erakusketa egingo dute, hilaren 26an, Matienan, eta 27an, Zelaietan (10:00-20:00).

Azoka Kulturala bihar, Elorri

AZOKA > Elorri Azoka Kulturala egingo dute, zapatuan, 09:30etik 14:30era. Elizpean eta udaletxe aterpean egongo dira postuak material ugariagaz: liburuak, seiluak, txanponak eta billeteak, adibidez. Toki berean antzinako auto klasikoen erakusketa ipiniko dute 20-30 ibilgailugaz.

%5eko deskontua erosketetan

DURANGO TXARTELA > Durango Txartela egitasmoan dauden komertzioetan egindako erosketetan %5eko deskontua izango da ekainaren 30era bitartean, Dendak Bai elkarrekin jakinarazi duenez. Durangoko, Abadiñoko, Iurretako eta Zaldibarko 80 komertzioek parte hartzen dute kanpaina horretan.

Iritzia

Zorionak!

Zorionez, lagun asko, esku asko batu ginen, eta talde bikaina osatu genuen. Zuotako bakoitzak egindako isileko lanari esker begiz jotako erronkari aurre egin genion, ondo aurre egin ere. Ekainaren 8a helburu, talde-lanean jende asko aritu gara, bai prestaketa lanetan, bai osteko lanetan ere. Horregatik, Durangoko Gure Esku Dago-k zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizue egun horretan, aurretik zein ostean, era batera edo bestera, giza katearen antolaketan parte hartu zenuten guztioi: muntaketa lanetan, elastikoak eta metroak saltzen, informazioa zabaltzen, giza katea antolatzen, pegatinak banatzen, trafikoa arautzen, txosnetan zerbitzatzen, zaintza lanak egiten, animoak ematen... Guztion auzolanari esker egun arrakastatsu eta borobila atera zen!

Ekainaren 8a oroitzeko moduko eguna izango da,

Euskal Herrian ez ezik, Durangon ere bai. 150.000 lagunek parte hartu genuen Gure Esku Dago herri dinamikak antolatutako giza katean. Eskuz esku, Durango eta Iruñea batu genituen.

Giza katea Durangon hastea ohore bat izan zen durangarrontzat, eta, aldi berean, erantzukizun handia ere bai. Hala ere, Durangoko Gure Esku Dago lan-taldeak ilusio adina ardura zuen dena ondo atera zedin, eta hala izan zen.

Aurrerantzean ere erronka berriak izango ditugu, hitzordu berriak. Zenbat eta esku gehiago batu, orduan eta errazago eta arinago egingo dugu erabakitze eskubidearen alde.

Zorionak guztioi!

http://youtu.be/T-HSDU_8JnQ

Maite Barreña eta Joselu Bikandi Durangoko Gure Esku Dago taldearen izenean



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Urtza Usabel | Caritaseko gizarte laguntzailea | Durango, 1979



“Beharrezana duten pertsonen egoerak kroniko bihurtzen ari dira”

Caritas Tabirak etxebakoentzako Etxepel egoitza zabaldu du Durangoko Intxaurren kalean

> BERBAZ Jone Guenetxea
Krisiak zuzenean eragin du Caritasen lanean. Langabeziak eta murrizketek kolpatutako pertsonen elkartera jotzen dute laguntza eske. Guraso bakarrek familiek, etorkinek eta gizarte-bazterketa jasan duten pertsonen, esaterako, zabalik dituzte Caritasen atea.

Caritasen zer arlotan diharduzu lanean?

Durangaldeko herri guztietan Caritasen taldeak daude, eta nire lana talde horiei laguntzea da.

Krisiak zelan eragin du zuen lanean?

Guk beti izan dugu lan asko. Orain kasu gehiago ditugu. Beraz, eskaera gehiago ditugunez, proiektu gehiago sortu ditugu eskaera horiei erantzuteko. Kasu berriak geroz eta gutxiago ditugu, baina egoerak luzatu egin dira denboran. Geroz eta zailago egiten zaie zulo horretatik irteera. Egoerak kroniko bihurtzen ari direla ikusten gabilta.

Durangaldeko daturik baduzue?

Elorrioren, esate baterako, 2008an hamasei familiari lagundu genien. 2013an, berriz, 45 familiari. Elorrioren kasuan laguntza

gehienak janari txartelak izan ziren. Dena dela, herri batetik bestera errealitateak oso ezberdinak dira.

Zuengana jotzen duen jendea zelako egoeratan aurkitzen da?

Bertako jendea zein etorkinak izaten dira. Seme-alabak euren ardurapean dituzten emakumeak; gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak; etxeko lanetan ziharduten, eta lana galdu duten emakumeak... Esan beharra dago, alde ekonomikoari dagokionez, emakumeek egoera zailagoak bizi dituzten arren, ekintzaileagoak direla, eta gaitasun handiagoa dute beraien burua baliagarria dela sentitzeko.

Familiatan, aitita-amamak ahalgin handia egiten ari dira.

Bai; lehen aitita-amamek hilotzak zaintzen laguntzen zuten. Orain, aita-amak langabezian daudenez, gehiago laguntzen dute seme-alabei eta hilotzari janaria edo laguntza ekonomikoa ematen. Etorkinek, aldiz, ez dute familia sare hori izaten.

Zelako laguntza eskaintzen du Caritasek?

Laguntza guztiak prozesu baten

barruan sartzen saiatzen gara. Ez ditugu erantzun puntual zehatzak ematen. Izan ere, oinarriko premiak dituenak, beste beharrezan batzuk ere izaten ditu: talde baten parte izateko premia edo autoestimua mailako premiak, esate baterako. Lana galtzen duenak ez du diru iturria bakarrik galtzen. Talde bateko parte izatea edo baloratuta sentitzea ere galtzen ditu. Beraz, gure laguntza psikologikoa eta ekonomikoa izan daiteke: janaria edo arropa erosteko txartel bat izan daiteke, adibidez. Garrantzitsua da esatea gure erabilzaileek beraien bizitzan protagonista izatea gura dugula, eta horretarako erantzun duinak ematen saiatzen garela, gizartean integratu daitezela. Beraiekin egiten dugu bidea.

Etxe barik dauden pertsonentzat Etxepel proiektua jarri duzue martxan.

Etxe barik dauden pertsonen zerbitzu integrala eskaintzen die. Eguneko zentroak, gizarte pentsioak eta pisu babestuek osatzen dute proiektua.

Harrera proiektua da ezagunena.

Bai, lehenengo zabaltzen den sarrerako atea da, egoerak eza-

gutzeko eta aztertzeko bidea, baina baditugu beste hainbat proiektu ere; Zaintza, adibidez, etxeko lanak egiten erakusteko eta lana modu aktiboan topatzen laguntzeko.

“

Sistema honek irabazi ekonomikoak pertsonen duintasunaren gainetik jartzen ditu

Umeei zuzendutako proiektuak zelan funtzionatzen du?

Desegituratutako familieta-ko umei laguntza eskaintzen diegu, gizarte-zerbitzuekin eta eskolekin batera. Garbitasun ohituretan, elikadura arloan eta etxerako lanetan eragiteaz gainera, jolastu ere egiten dute.

Ekorropa denda ere zuek kudeatzen duzue.

Amankomunazgoagaz batera arropa batzeko kontainerrak ditugu Durangaldean. Mungian lan integrazioa bultzatzen duen fabrika batean sailkatu eta garbitu egiten da. Arropa batzuk garatu gabeko herrietara bidaltzen dituzte, eta beste batzuk

Ekorropa denda jartzen ditugu salgai. Edozeinek erosi dezake denda horietan. Gure erabilzailearen batek ezin badu erroparik erosi, txartelak ematen dizkiogu, bertan erosi ditzan.

Eskaintzen dituzuen laguntzak zelan koordinatzen dituzue?

Laguntza sare bat dago, eta gizarte-zerbitzuak arlo honetan dihardugun elkarteekin koordinatuta daude. Caritasen laguntzak bigarren mailakoak dira. Hau da, beste laguntzarik jasotzeko aukerarik ez dutenak etortzen dira guregana.

Boluntarioekin egiten duzue lan.

Bai, boluntarioengan oinarritzen da Caritas. Profesionalok beraien lanean laguntzen diegu. Herri bakoitzean hainbat ekimen ditugu. Elorrioren eta Zornotzan, esate baterako, andreak erdaraz idazten eta irakurtzen ikastera joaten dira.

Murrizketak nabaritu dituzue?

Premia dutenei administrazioak ematen dien erantzuna ez da nahikoa. Murrizketak egin dituzte osasunean, hezkuntzan eta gizarte arloan, besteak beste. Medikamentuak ordaindu egin behar dira, eta batzuek hartze-ri utzi diote. Umeentzako bekak ere asko jaitsi dira. Mendekotasun Legean ere murrizketak egin dituzte. Beraz, krisi ekonomikoaz gainera, krisi soziala bizi dugu. Sistema honek desberdintasuna bultzatzen du. Irabazi ekonomikoa pertsonen duintasunaren gainetik jartzen du.

JAIIAK!

Atxondo

2014ko EKAINA



APATAKO JAIIAK 2014

*San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!*



www.atxondo.net



AXPEKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 20, BARIKUA

18:30ean esku pilota partiduak.

Atxondoko gazteen txapelketa 2014: finalurrekoak.

- Benjaminak: Atxondo-lurreta
- Kimuak B: lurreta-Atxondo
- Kimuak B: Atxondo-Abadiño
- Kimuak A: Elorrio-Abadiño

20:00etan nagusien esku pilota partiduak.

"Bereziak"

22:30ean txopo jasotzea.

Ondoren, berakatz zopa eta txokolatea denontzat.

Gero, erromeria Etzilimu taldearen eskutik.

EKAINAK 21, ZAPATUA

17:00etan, mus txapelketaren hasiera.

Arratsaldean, bakailaoa pil-pil eran eta tortilla txapelketa.

OHARRA! Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu.

Bakailao txapelketako dirusariak berdinak izango dira partaide guztientzat.

Irabazleak dirusari berdina, txapela eta garaikurra izango ditu.

Gazteentzat eta nagusientzat egongo dira sariak.

Aurkezpen ordua **21:00**etan izango da.

Herri afaria: Parte hartu dutenek euren lagun taldeagaz pilotalekuan afaldu ahal izango dute. Jai Batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu.

22:30ean, jaialdia:

Dantza eta musika ekitaldia.

Ondoren, erromeria Luhartz taldeagaz.

EKAINAK 22, DOMEKA UMEEN EGUNA

Atx-azpi elkarteak antolatuta

11:30ean meza nagusia.

Atxondoko Andasto dantza taldea.

13:00etan mus txapelketaren amaiera.

13:00etan esku pilota partiduak.

- Benjaminak B: Atxondo-Durango
- Kimuak A: Atxondo-Portugalete
- Haurrak B: Atxondo-Berriz
- Haurrak A: Atxondo-Zaratamo

18:00etan Zurrumurru antzerki taldea:

'Barrearen laborategia' ikuskizuna.

19:30ean umeen jolasak.

Ondoren, txokolatada eder bat.

EKAINAK 23, ASTELEHENA

Ilunkeran

San Joan suak

Amaitutakoan, txokolatada eder bat.

EKAINAK 24, MARTITZENA SAN JUAN EGUNA

11:30ean, meza nagusia

Ondoren, igel txapelketa.

Gero, herriko jubilatuentzat luncha.

16:00etan, briska txapelketa; hasiera eta amaiera.



AROSZTEGIA - TEILATUGINTZA
ANAIAK, s.a.l.

Txopoa jasota, gaur hasiko dituzte San Joan jaiak Axpen

Arratsaldean pilota partiduak jokatuko dituzte, eta gauean txopoa jasoko dute



Gaur txopoa jasoko dute, eta domekan dantza saioa eskainiko du Andasto taldeak.

Zientzialari "txoro" baten asmakizun bereziak domekako ikuskizunean

Zurumuru antzerki taldeak 'Barrearen laborategia' ikuskizuna eskainiko du



'Barrearen laborategia' ikuskizuneko une bat.

> **ANTZERKIA** J.D.

Domeka Umeen Eguna izango da, eta Atx-Azpi elkarrekin askotariko ekitaldiak prestatu ditu. Esaterako, 18:00etan, Zurumuru antzerki taldearen *Barrearen laborategia* ikuskizuna egongo da ikusgai. Gaztetxoei

zuzenduta dagoen arren, "adin guztietako jendea harrapatzen" duen ikuskizuna dela adierazi du taldeko Nerea Ariznabarretak. Eta bera da harrapatzeko amua, edo, zehatzago esanda, Margarita Matraz zientzialari "txoroa". Matrazek bere azkene-

ko asmakizunak ekarriko ditu Axpera: globoekin egindako ohe bat, esaterako. Probeta batetik arrautza egosia zelan atera ere irakatsiko du. Baina bere asmakizunak konplexuegiak dira bakarrik egiteko; horregatik prestatu daitezela plazako gaztetxoak, denen laguntza beharko du eta!

Jolasak eta pilota partiduak *Barrearen laborategia* ikuskizunaren ostean, 19:30ean, umeentzako jolasak prestatu dituzte, eta ahalegin horri laguntzeko txokolatada bat ere bai.

Eguerdian, aldiz, gaztetxoekin hainbat pilota partidugaz gozatzeko aukera egongo da Axpeko pilotalekuan. Benjaminek haur kategoriara arteko lau mailatan Atxondok Durango, Portugalete, Berriz eta Zaratamo izango ditu aurkari.

> **JAIK** Joseba Derteano

Gaur hasi eta datorren martitzenera arte San Joan jaiak ospatuko dituzte Axpen. Musika, pilota partiduak, mus eta bakailao txapelketa... askotariko ekitaldiek osatzen dute egitaraua, eta denen erdigune astelehen iluntzeko San Joan suak izango dira, Axpen bertan zein inguruko baserrietan piztuko dituztenak.

Gaur, 18:00etan, gazte mailako hainbat esku pilota partidugaz gozatzeko aukera egongo da Axpeko pilotalekuan. Ez dira lagunarteko partiduak izango, Atxondoko Gazteen Pilota Txapelketako finalurrekoak baizik. Lau finalurrekotik hirutan Atxondoko gazteak izango dira protagonista, eta Iurreta (birritan) eta Abadiño izango dituzte aurkari. Kimuen A mailan, aldiz, Elorrio eta Abadiño lehiatuko dira. Gauean, 22:30ean, ohiturari eutsi, eta txopoa jasoko dute jaiak hasi direla iragartzeko.

Zapatuan ere hainbat txapelketa daude, baina nagusiei bideratutakoak guztiak ere. 17:00eta-

tik aurrera mus txapelketako lehen kanporaketak jokatuko dituzte, eta tortilla eta bakailao txapelketak ere jokatuko dira. Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu, eta platerak aurkezteko ordua 21:00etan izango da. Ondoren, herri afarian batuko dira, pilotalekuan; Jai Batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu. Erromeriagaz amaituko dute eguna.

Domekan, 11:30eko mezaren ostean, dantza saioa eskainiko du Andasto dantza taldeak, eta, 13:00etan, mus txapelketako finalak jokatuko dituzte.

Astelehenean ekitaldi bakarra dago, baina denetan esanguratsuenak; iluntzean, San Joan sua piztuko dute Axpe inguruko larre batean, eta suaren argitara txokolatea banatuko dute bertaratzen direnen artean.

Martitzenean, San Joan egunean amaituko dituzte jaiak. Goizean igel txapelketa eta jubilatuentzako luntxa egongo dira. Gainera, 16:00etatik aurrera briska txapelketa izango dute.

Luhartz eta Etzilimuren erromeriak gau girorako

Erromeria bana egongo da gaur eta bihar, plazan

> **MUSIKA** J.D.

Edozein herritako edo auzotako jaietan lez, musikariek ez da faltako Axpeko San Joan jaietan. Erromeria saio banak alaituko du plaza inguruko gau giroa gaur eta bihar.

Gaur, txopoa jaso, eta berakatz zopa zein txokolateagaz

auzotarrek indarrak hartu ostean, Etzilimu taldeak erromeria eskainiko du. Bihar, berriz, Iurretako Luhartz erromeria talde ezaguna izango da agertoki gaitetik axpetarrak mugiaraziko dituen bere ohiko dantzeekin eta abestiekin. Kontzertua 22:30ean hasiko da.



Luhartz taldeak zapatuan eskainiko du erromeria.

ARKITEKTURA

U3

TEKNIKOAK

U3 Arkitektura Teknikoa
 J.A. Agirre Lekube, 10
 48291 Atxondo
 Tel.: 946 201 523 / 627 575 583
 Faxe: 946 819 061
 E-mail: unai@u-3.es

Eraikuntza-obra
Proiektuen kudeaketa osoa
Obra berria, birgaikuntza,
zaharberritze lanak eta legalizazioak

BURDINAK, S.L.

EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. Tel.: 946 583 164 Faxe: 946 583 416 ATXONDO

BI-632 Durango
 Pta. Ind. ARTIA
 BI-632 Elorrio
 Atxondo

ATXONDOKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 21, ZAPATUA

08:00 Mendi martxa (Asuntzen mendi taldeak antolatuta)

EKAINAK 26, EGUENA

19:00-21:00 pintxo-potea (taberna guztietan)

20:30ean esku pilota partiduak (finalak)

EKAINAK 27, BARIKUA

17:00etan txopo txikiaren apainketa.

19:00etan txopo txikiaren eta txopoaren igoera, Atxondoko batukada taldeak alaituta.

20:00etan tortilla eta bakailao txapelketa.

23:00etan Etzilimo erromeria, plazan. Ondoren, DJ Kapela gaztetxean.

EKAINAK 28, ZAPATUA MOZORRO ETA KUADRILLA EGUNA

10:30ean txistulariak.

12:00etan Puski eta Txurruski pailazoak, plazan.

15:00etan paella-jana eta jubilatuen bazkaria, plazan.

17:00etan kuadrillen arteko jolasak, pilotalekuan.

17:00etan erromeria, Ziarreta auzoan.

18:30ean Txaranga.

23:00etan The Pothos eta Zea Mays, plazan.

02:30ean DJak, gaztetxean.

EKAINAK 29, DOMEKA SAN PEDRO

06:30ean gaupaseroen argazkia, gaztetxean.

10:30ean txistulariak.

16:30ean gazteen esku pilota partiduak.

17:00etan 28. Igel Txapelketa, Itziar tabernan.

19:30ean Andasto dantza taldearen erakustaldia.

21:00etan pilota partiduak:
Mikel Goñi, Eulate, Olazabal eta Jaio.

EKAINAK 30, ASTELEHENA SAN PEDRO TXIKI EGUNA

11:00etatik aurrera Zurezku haurrentzako jolasak.

19:00etan saiheski-jana eta txopoa botatzea.

20:30ean dantza bertikalak, trapezioa eta telak, pilotalekuan. Ondoren, 'Sanpedroak 2014' bideo emanaldia, gaztetxean.

ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK



www.soul-cemosa.es



cemosa
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

CEMOSA Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 946 231 717 - Faxe: 946 231 799

Batukadako kideek emango diete jaiari hasiera datorren barikuan

Ekainaren 27an, 19:00etan altxatuko dituzte jaietako txopo txikia eta handia

> MUSIKA Itsaso Esteban
Asteburu honetarako, ekainaren 21erako, Asuntze taldeak antolatu duen mendi martxagaz ekingo diote Atxondoko jaietarako prestaturiko egitarauari. Jaiari hasierako pregoia irakurtzea eta txopoa ipintzea, baina, datorren astean, ekainaren 27an egingo dute. Azken urteetan bezala, Marixurrike aisialdi elkarteagaz apainduko dute umeez 17:00etan txopo txikia, eta 19:00etan altxatuko dituzte txopo txikia zein handia.

Herriko batukada taldeak girotuko du txopoaren igoera, hain zuzen, ondoren, udaletxetik pregoia irakurriko duen taldeak. Orain urte bi sorturiko taldea da batukada taldea, eta dozena bat lagun biltzen dira bertan, 16 eta 40 urte arteko lagunak. Batukada taldeari in-

darra eman, eta jendea ekimen horretan parte hartzea hurrez hurrez gonbidatzeko helburuz hautatu dute talde horretako kideek ematea jaiari hasiera.

Domekara batzen da batukada taldea gaztetxean, eta parte hartu gura duten guztientzat dauzka ateak zabalik.

Sukaldaritzaren parte hartu dutenek osatuko dute bakailao txapelketako epaimahaia

Hainbat berritasun egin ditu Jai Batzordeak aurtengo jai egitarauan: lehiaketa gastronomikoetan, besteak beste. Orain

arte lehiaketa bidez egiten bazuten, tortilla txapelketako sariak zozketa bidez banatzea erabaki dute aurten.

Bestetik, ikasturte honetan sukaldaritzaren parte hartu dutenek osatuko dute bakailao txapelketako epaimahaia. Ekainaren 27an, 20:00etan egingo dituzte tortilla eta bakailao txapelketak.

Mahai tresnak etxetik

Mozorro eta Kuadrilla Egunean egingo dutenaren moduko herri bazkarietara bakoitzak bere mahai tresnak eramateko eskatu dute antolatzaileek: plastikozkoak alboratu, eta birziklapenaren alde egiteko. Helburu berragaz, txosnetan, herri tabernan zein gaztetxean berrerabiltzeko edalontziak ipiniko dituzte aurtengo jaietan.



Jende asko batzen da jaiari hasierako ekitaldira.



Zea Mays talde bilbotarrak 'Da' diskoko kantak ekarriko ditu Atxondora.

Kontzertuak plazara bueltan: Zea Mays eta The Potes taldeekin

Ekainaren 28an ariko dira talde biak zuzenean

> MUSIKA I.E.

Mozorro eta Kuadrilla Egunean, ekainaren 28an, 23:00etan eskainiko dituzte kontzertuak The Potes eta Zea Mays taldeek. *Da* izeneko diskoko kantak eskainiko dituzte zuzeneko emanaldi horretan Zea Mays taldeak bilbotarrak, azaroan aurkeztu zuten zazpigarren diskokoak.

Folk irlandarraren eraginak dauzkan proiektua da, bestalde, egun berean Atxondon joko duen Arrasateko The Potes taldearena. Bai musikari dagoenez, eta baita taldekideen musika eta jaiari uztartzeko ginarri dagoenez ere. The Pogues edo The Dubliners irlandarren jarraitzaile dira Arrasateko musikariak, eta gustuko taldeen

Duela hamarkada bi inguru egiten zen bezala, plazan izango dira, aurten, jaietako kontzertuak

The Pogues edo The Dubliners taldeen bertsiok egiten dituzte The Poteseko arrasatearrek

bertsiok eskaintzen dituzte euren kontzertuetan. Taldeko musikarien berbetan, punk-folk nahasketa da egiten dutena.

Duela hamarkada bi inguru egiten zen bezala, plazan izango dira aurten Atxondoko jaietako kontzertuak. Azken urteetan gaztetxean egin izan dituzte, baina 2014ko jaietarako lehengo apustua berrartu gura izan du Jai Batzordeak, kontzertuak kalera, plazara aterata.

Azken urteetan, jaietan esparru desberdinak sortu izan dira azaldu dute Jai Batzordeko kideek; plazan erromeria giroa, eta gaztetxean gazteei zuzendutako emanaldiak. Kontzertuak berriro plazara ekarrita, muga horiek apurtzea gura dute Jai Batzordean parte hartu duten norbanakoek eta elkarteek. Ekainaren 27an, 23:00etan, plazan izango da Etzilimo taldearen erromeria ere.

Txistularien eta DJen doinuek ere berotuko dute jaiari: ekainaren 28an, Ziarreta auzoan ariko da DJa, eta 28an eta 29an, 10:30ean, txistulariak ariko dira.



• Continental Teves: urteko hornitzaile onenari saria (2004-2006-2011)



2002. ENPRESAREN INGURUMEN-RAKOR KUDEAKETA JASANGARRIAREN EUROPEAR SARIA



EMAS sisteman (ingurumen-kudeaketa eta ikuskaritzarako europar sistema) inskribatuta



• ISO/TS-16949
• ISO 14001
• OHSAS 18001



ESTAMPACIONES LARRETXE S.L.

- PIEZAK TROKEL PROGRESIBOEN BITARTEZ FABRIKATZEA
- HAGAXKEN HOTZEKO ESTANPAZIOA
- ESTANPAZIOA ORO HAR

Jauregi kalea, z/b · ARTIA ind. 5.pab. · 48292 ATXONDO
Tel.: 946 231 645 · Faxa: 946 231 436 · www.larretxe.com



Ezkerrik eskumara: Ander Arrasate, Faben Ituarte, Iskander Agirrebeitia, Aitor Gallastegi, Josu Eguren eta Egoitz Axpe.

Bizkaiko herriarteko txapeldun gazteak ikusteko aukera jaietako pilota txapelketan

Benjamin, kimu eta haur kategorietan Bizkaiko pilotaririk onenak Atxondoko pilota elkartean ari dira

> PILOTA Joseba Derteano. Atxondok Bizkai mailako harrobirik oparoenetakoa du esku pilotan. Horren erakusgarri da azken urteotan Bizkaiko herriarteko txapelketan egin duten bidea. Orain urte bi irabazi egin zuten gazte mailetan; iaz finalean galdu zuten, eta aurten berriro txapeldun geratu dira. Etorkizuneko izar izan daitezkeen gaztetxoak bertatik bertara ikusteko aukera izango da Apatako zein Axpeko jaietan. Axpen finalurrekoak jokatuko dituzte; Apatan, ostera, finalak,

ekainaren 29an, San Pedro egunean, 16:30etik aurrera. Gaur egun hogeit bat gaztetxok entrenatzen dute Apatako pilotalekuan, astelehentik eguenera. Egun asko diren

Hogeit bat gaztetxo dabilta Atxondon; ez dira asko, baina denek "gogotsu" entrenatzen dute

arren, "gehienak egun guztietan etortzen dira", adierazi du Oier Jaio entrenatzaileak, "eta beste kirol batzuetan ere badabiltzanak ahal duten denetan etortzen dira". Beraz, ez dira asko, baina dabiltzanak "gogotsu" dabilta, eta hori igarri egiten da partiduetan. Zaldibarren jokatutako herriarteko finalean hiru partiduetan irabazi zituzten Zeanuriren aurka. Benjaminetako bikotea Faben Ituartek eta Iskander Agirrebeitiak osatu zuten; kimuetakoa Ander Arrasatek eta Aitor Gallastegik;

eta haur mailakoa Egoitz Axpek eta Josu Egurennek. Partidu gogorrak izan zirela gogoratu du Jaiok: "Den-denak partidu gogorrak izan ziren. Irabazi zein galdu egin genitzakeen, eta azkenean irabazi egin genituen". Orain asteburu bi irabazitako txapelketaz gainera, beste hainbat zerrendatu daitezke aurtengo denboraldi oparoan: Haur kategoriakoek Bizkaiko B mailako Txapelketa irabazi zu-

ten lehenengo, eta Euskadikoa, ondoren. Benjaminek, Durangaldeko Pilota Txapelketako finala irabazi zuten. Lanak bere fruituak ematea pozgarria da, Jaioren arabera. "Lana ematen du, baina ni beti pilotaren inguruan ibili naiz, orain ere banabil, eta gustura entrenatzen ditut gaztetxoak. Gero, emaitzak heltzen direla ikustea ere pozgarria da, jakina".

Pilotakadaz Pilotakada Nagusien arteko txapelketa ere jokatuko dute jaietan. Finalak ekainaren 26an izango dira, 20:30etik aurrera. Gainera, Pilotakaz Pilotakada txapelketari dagozkion partiduetan jokatuko dituzte asteburu honetan.



Oier Jaio entrenatzailea eta Atxondon pilotan dabiltzan gaztetxoaren familia argazkia.

Mikel Goñik jokatuko du nagusien arteko partiduan

Mikel Goñik eta Peio Martínez de Eulatek Oier Jaio eta Mikel Olazabal izango dituzte aurkari

Jaietako pilota eskaintzaren barruan, Garfe enpresako lau pilotariren arteko partidua ikusteko aukera dago ekainaren 29an, 21:00etan. Azken urte bietan galduta izan duten ohitura berreskuratu dute horrela: "Giro polita sortzen pilotalekuan, eta horregatik erabaki dugu berreskuraztea", adierazi du Oier Jaiok.


Lau protagonistetako bat bera izango da, eta Mikel Olazabal izango du bikotekide. Profesionaletan Aspen eman

zitzen urteetan (2008-2013) bigarren mailako lau t'erdian azpitxapeldun geratutakoa da. Parez pare Mikel Goñi eta Peio Martínez de Eulate izango dituzte. Goñiren ibilerak ondo ezagunak dira pilotazaleen artean, eta Martínez de Eulatek lehen mailako binakako txapelketa birritan irabazi du: 2006an Juan Martínez de Irujogaz eta 2007an Ives Salaberri Xalagaz. Garfegaz udan partidu dezente jokatzen dituzte León eta Burgos inguruetan.

JAIAK!

Berriz

2014ko EKAINA



Emakumeen aurkako
indarkeriarik eta
eraso sexistarik ez!

JAIKETAN BE EUSKARAZ!



BERRIZKO JAIEN EGITARRAUA

EKAINAK 27, BARIKUA

17:00 Pregoï Txikia udaletxean. Gero olinpiadak eta umeentzako askaria.

19:00 Pregoia eta txupinazoa udaletxean, Berrizko Hiltegixe gaztetxeak eskainita. Ondoren, jaietako karte lehiaketaren sari-banaketa udaletxean. Ostean, urtero bezala, sardina-jana.

19:30 Txosnen irekiera, 'Txosna 1, joko 1', txosnek antolatuta.

20:30 Egan musika taldeagaz dantzaldia Elizondo plazan.

22:00 Nesken V. eta mutilen VI. frontenis txapelketetako finalak Berrizburu kiroldegian.

23:00 Kontzertua: The Capaces eta Estricalla taldeekin. Txosnagunean, txosnek eta Jai Batzordeak antolatuta.

EKAINAK 28, LARUNBATA, KUADRILLEN EGUNA

11:00-14:00 / 16:30-19:00 Trena Elizondotik Olakuetaraino, Berrizko Merkatarik Elkartek (BME) antolatuta.

14:00 Paella lehiaketa udaletxeko lorategian.

15:00 Mozorro bazkaria eta bingoa, txosnek antolatuta.

17:00-20:00 Umeentzako Tringili Trongolo parkea, eskolako patio berrian.

17:30 Karta joko lehiaketa: musa, tutea eta briska. Izen-ematea 17:00-17:30.

18:30 Kuadrillen jaitisiera, txosnek antolatuta.

19:30 Herriko igel txapelketa. Izen-ematea 19:00-19:30.

20:00 Elizondo plazan Donien Atxa eta dantzari-dantzaren entsegua.

21:00 Erromeria DJ Robertegaz, Elizondo plazan.

23:00 Kontzertua Cobra, Cohen eta Minor Empires txosnagunean.

24:00 Bolo txapelketa.

EKAINAK 29, DOMEKA, SAN PEDRO EGUNA

12:00 Bizikleta martxa herrikoia, udaletxe aurrean hasita.

12:30 Meza nagusia. Ondoren, dantzari-dantza.

16:30 Arno eta animaliak umeentzako. Elizondo plazan.

16:30 XII. Oizpe Pilota Txapelketa Olakuetako pilotalekuan.

17:30 3x3 saskibalo txapelketa, 9-17 urte bitarteko neska-mutilentzat. Institutuko patioan. Gero, jaurtiketa libreen saskibalo txapelketa familientzat.

19:00 Kale antzerkia: Tresperteren 'Hemen, bat soberan dago', eskolako patioan (euria egiten badu, Berrizburu kiroldegian).

20:00 Dantzari-dantza.

22:00 Boleroen gaua Añoranza taldeagaz, Elizondo plazan.

EKAINAK 30, ASTELEHENA

12:00 Tribiala (12 urtetik gorakoentzat) udaletxeko lorategian.

12:30-14:00 Umeentzako jolas-parkea kiroldegian.

17:00-20:00 Umeentzako jolas-parkea kiroldegian.

18:00 Karta joko lehiaketa: musa, tutea eta briska. Izen-ematea 17:30-18:00 (12-18 urte), lorategian.

19:30 Herriko igel txapelketa (12-18 urte) lorategian

20:00 'Txatarra' zirku antzerkia, Elizondo plazan.

21:00 Gazteentzako bolo txapelketa (12-18 urte).

21:30 Musika eta jai, Xaibor.

22:30 Bideo emanaldia. 'Berriz eskalatzen' eta 'Hiltegixek 15 urte', txosnek antolatuta.

23:00 Bits jai.

UZTAILAK 1, MARTITZENA

Goizez, **12:30 - 14:00** / arratsalde, **17:00 - 20:00**
9 urtetik gorakoentzat: goming, bola zirkuitua. Multimedia, jolasguneak eta kirolguneak Berrizburu kiroldegian.

Tiragomas txapelketa udaletxeko parkean (denontzat).

Hainbat maila

17:00 umeak

18:00 helduak

20:00 Kale antzerki ibiltaria: Markeliñeren 'Andante', eskolako patio berrian.

22:00 Playback lehiaketa, txosnek antolatuta.

22:30 Ezten Giro musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan.

22:30 Kontzertua. Curioso Periplo eta herriko musika taldeak, txosnek antolatuta.

UZTAILAK 2, EGUAZTENA SANTA ISABEL EGUNA

11:00 Margo lehiaketa umeentzat. udaletxeko parkean (euria egiten badu, eskolako patio berrian).

12:00 Meza nagusia eta dantzari-dantza.

14:00 Jubilatuentzako bazkaria. Bazkalostean musika. Kiroldegian.

18:00 Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek 'Kontxo, kontxo' aurkeztuko dute eskolako patioan (euria bada, kiroldegian).

19:00 Bertso barbakoa, bertsolari gazteekin, txosnek antolatuta.

20:00 Dantzari-dantza.

21:00 Kontzertua: Berrizko Rock Elkartearen Taldeak (BREA). Txosna gunean.

21:00 Tortilla lehiaketa udaletxeko lorategian.

22:00 Luhartz musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan.

23:00 Su artifizialak.

23:15 Luhartz musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan.



FORJAS DE BERRIZ, S.L.



Pieza berezien beroko forja

Iturriza, 22 • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • Tel.: 946 826 520 • Fax: 946 826 521 • www.forjasdeberriz.com



Eitua industrialdea, 20
48240 BERRIZ
Tel.: 94 682 40 12
Faxa: 94 682 79 78

www.vcg-decoletaje.com
comercial@vcg-decoletaje.com

Jai giroz beteko da Berriz San Pedro eta Santa Isabel jaietan

Datorren barikuko txupinazoak emango die jaiari hasiera ofiziala

> JAIK Jone Guenetxea

Dena prest dute Berrizen San Pedro eta Santa Isabel jaiei hasiera ofiziala emateko. Datorren barikuan, ekainaren 27an, arratsaldeko 17:00etan, pregoi txikiak zabalduko du jai egitaraua. Umeek eta gazteek udaletxean beraien pregoia irakurriko duten bigarren urtea izango da hau. Jai Batzordeko kideek diotenez, iaz harrera ona izan zuen ekitaldia izan zenez, aurten ere antolatu dute. Ondoren, olinpiadak eta askaria izango dituzte umeek.

Nagusien pregoia eta txupinazoa, berriz, arratsaldeko 19:00etan botako dute. Aurten Hiltegixe gaztetxeko kideak izango dira ekitaldiko protagonista. Ostean, jaietako kartel lehiaketako sariak banatuko dituzte. Iker Loizate Navaroren kartelak irabazi du aurten sari nagusia. Ohikoa den legez, sariak banatutakoan sardina-jana prestatuko dute.

Txosnak txupinazoaren ostean zabalduko dituzte. Jai giroa txosnagunera zabaldu guran, *Txosna 1, joko 1* jokoa prestatu dute.

Paella lehiaketa

Paella lehiaketa izaten da Berrizko jaietako ekitaldirik jendetsuena. Iaz 1.600 lagun bildu zituen ekintza horrek. Kuadri-

llen Egunean, ekainaren 28an, egun osorako plana eskaintzen du, beraz, paella lehiaketak. Goizeko 10:00etan lekua hartzera joan, eta 14:00ak arteko tartea izaten dute parte-hartzaileek arroza eta bere osagarriak ahalik eta gozoen prestatzeko. Bazkaldu eta gero, gauerdira arte udaletxeko lorategian egoteko aukera izaten da, hortaz, talde

tagaz bat egiten dute hainbat bikotek.

Gazteentzako ekintzak

9-16 urte arteko gazteentzat egitarau erakargarria prestatzea zaila izaten da sarritan. Adin tarte horri begira, Jai Batzordeak goming, bola zirkuitua, multimedia, jolasguneak eta kirolguneak atonduko ditu Berriz-buru kiroldegian, uztailearen leian. Aurreko egunean bits jaiak ere izango dute.

Umeek ere izango dute jai egitarauko ekitaldietan parte hartzeko aukera, ekainaren 30ean, kiroldegian prestatuko duten umeen jolas parkean. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen ere *Kontxo kontxo* ikuskizuna aurkeztuko dute uztailearen 2an, eskolako patioan.

Musika eskaintza

Musikak protagonismo handia izango du jaietan. Egan, DJ Robert, Ezten Giro eta Luhartz taldeek erromeria doinuak ekarriko dituzte Berrizera. Kontzertuei dagokienez, The Capaces, Estricalla, Cobra, Cohen eta Minor Empires taldeak txosnaguneko taula gainera igoko dira. Curioso periplo taldeak eta herriko musika taldeek ere zuzenekoak eskainiko dituzte. Jaiari amaiera emateko, su artifizialak jaurtiko dituzte uztailearen 2an.

Pregoi txikiak zabalduko du Berrizko jaietako egitaraua, ekainaren 27an, 17:00etan

Iaz 1.600 lagun bildu zituen paella lehiaketak Kuadrillen Egunean, udaletxe aurreko lorategian

askok bazkalostea luzatu, eta afaria ere bertan egiten dute.

Zapatu horretan arrakasta izaten duen beste ekitaldi bat karta-jokoa izaten da. Paella jan eta indarrak berritu ostean, mus, tute eta briska txapelke-



GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

MATERIAL DE CONSTRUCCION

MACOBER

Eraikuntzarako materiala

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Liburudenda

Amaluv

aldizkariak - papera - opariak

Iturriza, 29 Berriz Tel.: 946 826 248

TA TORNILLERIA AMEZUA S.A.

TORLOJU eta PIEZA BEREZIEN FABRIKAZIOA

Geltoki, 13 - 36 PK - Tel.: 946 824 059 - Faxa: 946 827 980 - 48240 BERRIZ (Bizkaia)
www.tornilleria-amezua.com - jamezua@tornilleria-amezua.com



ERROTARIXUENA DURANGO

Errotarixuena ren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

2 log. 204.000 €+BEZ } -tik aurrera
3 log. 268.000 €+BEZ }



www.solvvia.es Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41
www.sukia.com



sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa

“Jaietako txupinazoa botatzea gure mezua herrira zabaltzeko aukera bat da”

Hiltegixe gaztetxeko kideek jaurtiko dute jaien hasierako txupinazoa; ez da “ohikoa” izango

> PREGOIA Markel Onaindia
Hiltegixe gaztetxeko kideek edukiko dute aurten jaietako hasiera emateko ardura. Euren jaurtiko dute hasierako txupinazoa, eta zinegin dute ez dela ohikoa izango. Hori bai, sorpresa lez mantenduko dute azken momentura arte. Duela hamabost urte jaio zen Hiltegixe, eta efemeride horren bueltan jaso du txupinazoaren omena. Espazio hori biziberritzen saiatzen dabilta gazte batzuk, eta herrira zabaltzeko dute. Dunix Narbaiza, Xabat Olariaga, Oihana Alberdi eta Sandra Hernandez dira euren txupinazoa euren helbururako aprobetxatu gura dute, Hernandezen arabera: “Jaietako txupinazoa botatzea, gure mezua herrira zabaltzeko aukera bat da”.

1999ko otsailean okupatu zuten Berrizko hiltegi zaharra. Gazteek euren aisialdia garatzeko espazio bat izango zuten hortik aurrera, eta mugimendu indartsua piztu zen. Alberdik gogoratu du lehenagotik zeto-rella mugimendu hori: “Hau okupatu baino lehenago asanblada piloan egin zen”. Gainera, beste arlo batzuekin lotuta ere sasoi bizia zen. “Intsumisio taldea sortu zen, presoan aldeko mugimendua... Musika lokala ere hemen zegoen, eta mugimendu gehiago ikusten zen”. Era naturalean jaio ei ziren dinamika horiek. “Berriz gaur egun egiten diren hainbat ekintza gaztetxetik irten ziren. Jaietako bazkaria, kuadrillen iguera eta sanjoanak, adibidez”.

Indarretik ahulera

Baina hamabost urtean, momentu onak lez txarrak ere egoten dira. Gaitza izaten da bolada onari eustea, belaunaldien ar-

teko transmisioa iraunkortzea. Hiltegixek ere ahul pasatu ditu urte batzuk, euren aitortu lez. Bizi ohiturak aldatu dira, eta gazte gehienak lokaletan batzen dira gaur egun. “Okupatu zenean ez zen egon lokalen moda hori”, adierazi du Hernandezek. Izan ere, gazteak kalean zebiltzan sasoi horietan.

Indartzeko prozesua

Baina, indarralditik ahultasunerako pausoa eman zen lez, kontrako norabidea egin gura dute orain. Gaztetxea herrira zabaltzeko asmoa daukate, eta gazteak bertara hurreratzera animatuko dituzte. Jaiak eta uda igaro ostean, barne prozesu bat garatuko dute; eztabaida eman, eta ideiak argitzea da euren helburua: “Ideia piloan daukagu, baina zurrumbiloan sartuta gaude, eta azkenean ez ditugu aurrera eramaten”, esan du Hernandezek. Prozesu horretan parte hartzeko gonbidapena egin du Olariagak: “Badirudi beldurra dagoela iritzia emateko. Asanblada zabaltzea gura dugu. Irailetik aurrera jendea animatu dadila hona etortzera”. Ateak zabalik daudela, eta gura dutenean joateko eskaintza egin du Narbaizak.

Gaztetxearen izaera

“Herriko gazte guztiak elkartzeko leku bat”. Horrela definitu du Hiltegixe Narbaizak. Baina harago joan da Alberdi; bere ustez, ez gazteentzako bakarrik, beharizanen bat daukan edozeinentzako leku bat da. Azaldu du, gainera, datorren urterako ikastaroak prestatzeko asmoa daukatela, beharizan horien arabera. Adibidez lez ipini ditu mekanika tailerra eta dantza ikastaroak.



Olariaga, Narbaiza, Alberdi eta Hernandez, Hiltegixe gaztetxearen aurrean.

Aurten hasi dira biziberritzeko norabide horretan. Abortuaren aldeko astea egin zuten, presoan inguruko ekintzetan batu ziren, eta kontzertuak ere programatu dituzte. Olariagak azaldu du herriko beste elkarrekin ekintzetan ere laguntzen saiatzen direla, elkarlanaren bidez.

Jaietan, txosnaguneari

Berrizko jaietan txosnaguneari egongo dira gaztetxeak, urtero lez txosna ipiniko dute eta. Txosna Batzordean parte hartzen dutela esan dute, baina egitarau ofizialean ere bai. Jendea txosnagunera hurreratzera animatu du Olariagak, eta bertan denetarik topatuko dutela dio: kontzertuak, bazkariak...

Narbaizak esan du aurtengo txosnaguneko bazkarirako herritar bakoitzak bere jateko eraman beharko duela, eta ho-

rrera hasierako formatura bueltatuko direla.

Txosna gazteak batzeko leku bat izango da. Gainera, ekonomikoki garrantzia dauka; izan ere, urte osoko dinamika ordaintzen lagunduko die, Hernandezen arabera.

Erasorik ez

Argi daukate jaiak ez direla parranda egiteko bakarrik; lanerako ere badirela nabarmendu dute. Gaztetxearen balioei eta identitateari eutsiko diete herriko ospakizunean ere. Horri lotuta, izaera zabala eduki arren, uste dute ez dela libre nahi den guztia egitea. “Txosnaguneari ez dugu onartuko eraso sexistarik eta homofoborik”, adierazi du Olariagak.

Hiltegixe biziberritzeko prozesu bat egin gura dute, eta txupinazoa izango da, seguruenik, horretarako abiapuntua.

Barne prozesu bat garatuko dute; eztabaida eman, eta ideiak argitzea da euren helburua

“Asanblada zabaltzea gura dugu. Irailetik aurrera jendea animatu dadila”

HIERROS
RRIEZU S.A.
burdinak
eta metalak
Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

Juliantxu
Jatetxea
94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)

BADUZU MINUTU BAT?

HORI DA BEHAR DUGUNA IURRETAKO RENAULT GAURSAN RENAULT MINUTO ZABALDU DUGULA AZALTZEKO

Konponbide eraginkorrak eta bizkorak zure ohiko mantentze-lanei: azterketak, pneumatiko aldaketak, olio eta iragazki aldaketak, bateriak, indargetzaileak...

Eta gaur egungo beharizanen neurrira osatutako hiru abantaila:

- AURRETIKO HITZORDURIK GABE ● PREZIO ITXIAK ● LAN BAKOITZEKO ORDUTEBE BAINO GUTXIAGO



**ETA OSPATZEKO, ZURE OPORREI BEGIRA, APROBETXA EZAZU GURE
RENAULT GAURSA ESKAINTZA BEREZIA.**

2X1 MICHELIN PNEUMATIKOETAN*

Zure zain gaude!

**RENAULT
MINUTO**

DRIVE THE CHANGE



* Eskaintza lurretako Renault Gaursan da baliozkoa, 2014ko ekainaren 30era arte. Eskulana, orekatzea, ekotasa eta BEZa ez daude barne. Kontsulta itzazu kontzesioaren baldintzak. Eskaintza hau ezin daioke gehitu indarrean dagoen bestelako eskaintza edo promozio bati.

Nazioarteko 9 banda ariko dira Zornotzako Haizetara lehiaketan

Zornotza musikaz beteko dute, gaur, bihar eta etzi

> MUSIKA Itsaso Esteban Aurtan, hamabi herrialdetako 48 taldek bidali dituzte Haizetara lehiaketan parte hartzeko euren eskariak. Horietatik bederatzia aukeratu ditu epaimahaia, asteburu honetan Zornotzako entzuleen aurrean jo, eta sariarik gatik lehia daitezten.

Aurreko edizioetan bezala, hiru sari daude jokoan kaleko musikaren nazioarteko lehiaketa honetan: 10.000 euroko lehenengo saria, instrumentistatik onenarentzat 1.000 eurokoa, eta ikusleek ematen duten 4.000 eu-

rokoa. Bihar, 20:00etatik 01:30era Sabino Arana kalean egongo den kutxan eman ahalko dute entzuleek publikoaren sarirako euren botoa.

Mastretta (Espainia), Krakow Street Band (Polonia), Imperial Kikiristan (Frantzia), Tokyo Brass Style (Japonia), Perhaps Contraption (Erresuma Batua), Archimossi (Italia), Bizu Coolective (Portugal), Ottoni Animati (Italia) eta Fanfara Transilvania (Errumania) dira 2014ko Haizetara lehiaketan joko duten taldeak. David Latxaga



alkateak azpimarratu du batez ere Europako taldeak ekarri izan dituztela, eta "aurtengo nobedadea, berezitasuna, Japoniako taldea izango da". Bederatzi neskek osaturiko taldea da Tokyo Brass Style, eta hamahiru disko kaleratu dituzte 2005ean taldea sortu zutenetik.

Gaur, 19:00etan emango diote jaialdia hasiera, Zelaieta parkean, eta herriko txoko batean joko du talde bakoitzak ordu erdiz, gauerdian Imperial Kikiristan taldeak Zubiondo plazako emanaldiagaz egunari amaiera eman arte.

Zapatuan, aldiz, 13:00etan, Euskal Herria plazan joko du Archimossi taldeak lehenengo emanaldia, eta egun osoan izango dira emanaldiak. Domeka goizean, auzoetan zehar zabalduko dituzte lehiaketan parte

hartzen duten bederatzia musika taldeek euren doinuak, eta, 13:00etan, Zelaieta parkean egingo dute sari banaketa ekitaldia.

Bestetik, barikuan zein zapatuan, 23:30etik aurrera, Joe González zornotzako musikariak *jam session* bi eskainiko ditu bere boskoteagaz, Harrison hotelean izango da hitzordua.

"Familiagaz zein lagunartean Haizetara gozatzera etortzera" gonbidatu ditu Andoni Agirrebeitia zinegotziak herritarrek: "Haizetara denon gozamenerako antolatzen dugulako". Urritik programazioa lantzen jardun den taldeari eskerrak eman dizkio zinegotziak.

Haizetara jaialdiak erakarritza Zornotzan biltzen diren ehunka musikazaleak asetzeko, jan-edanerako lau gunek atonduko dituzte aurtan ere: Euskal taber-

na (Gernika plazan), Sagardotegia (Zelaieta parkean), Garagardotegia (Zubiondo plazan) eta sorpresa gastronomikoen gunea (Arraibi plazan).

Argazki erakusketa

Haizetara lehiaketaren bueltan antolatu dute, eta aste honetan bertan zabaldu dute, *Musikoak* argazki erakusketa. 1940 eta 1990 urteen artean herrian emanaldiak eskaini dituzten instrumentisten argazkiak bildu ditu erakusketa horretarako Patxi Gonzalez zornotzarrak. Uztailearen 11ra arte egongo da ikusgai Zelaieta zentroan argazki erakusketa hori.

Patxi Gonzalezek azaldu duenez, 500 argazki bildu ditu, eta horietatik 130 erakusketarako zaharbertzako lana egin du Jose Javier Lacalle *Lakak*.



Asteon zabaldu dute musikariz osatutako argazkien erakusketa, Zelaietan.

Argazkigintza intimoaren inguruko gogoetak, Begira Photo jaialdian

Goiuri Aldekoa-Otalora eta Rous Boisier argazkilarien lana izan da berbagai



Durangoko Arte eta Historia Museoa eskaini zuten argazkilariak berbaldua, martitzenean.

> ARGAZKIGINTZA I.E.

Barnekoari argazkiak egitea izenburuko berbaldua eskaini zuten Goiuri Aldekoa-Otalora argazkilari durangarrak eta Rous Boisier txiletarrak Begira Photo jaialdiaren barruan. Martitzenean, Durangoko Arte eta Historia Museoa eskaini zuten hitzaldia, autore biek euren argazki lanen erakusketa ipini duten leku berean.

Argazkigintza garaikideari lotuta, datozen egunetarako ere eskaintza zabala dakar Begira jaialdiak Durangaldera. Aipagarriak diren hitzordu berezi bi izango dira, esaterako, bihar: kamera estenoipeko bat bertatik bertara ikusteko aukera eskainiko du Durangoko F-Stop argazki elkarteak 18:00etatik aurrera, Ezkurdin. Big Mama proiektuaren barruan, aurreko mendeetan margolariak erabiltzen zuten teknika fotografiko hori ezagutaraziko dute. F-Stop elkartearen urtetan egin duten ikerketa lanaren emaitza da erakutsiko duten kamera estenoipekoa. Antzinako argaz-

kigintza metodo hori barrutik ikusteko aukera eskainiko du F-Stop elkarteak, eta unean uneko errebelatua zelatik egiten duten ere ikusi ahalko dute jaingura dutenek.

Bestalde, bertso saio batek zabalduko du bihar, 20:30ean, Begira Photo jaialdiko hurrengo argazki proiektzioa. Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolari durangarrak ariko dira Andra Maria elizpeko saio horretan. Bertsolarien emanaldiaren ostean, Peruko eta Marokoko autoren argazkiak erakutsiko dituzte Durangoko Andra Mariako elizpean. Gainera, argazkien egileetako batzuk ere egongo dira argazki proiektzio horretan.

Bestetik, atzotik eta ekainaren 29an Begira jaialdia amaitzen den arte, mural bat osatzen parte hartzeko gonbidapena egin diete herritar guztiei. *Familia* gaiaren inguruan bakoitzak argazki bat aukeratu, inprimatu eta udaletxe aurreko plazako muraletan itsasteko proposamena luzatu dute Begira jaialdiaren antolatzaileek.

Kulturguneko programazioak kalean du jarraipena, ekainean eta uztailean

Datorren astetik uztaile amaitu arteko San Agustin kulturguneko eskaintza



Aretotik kalera aterako ditu datozen asteetan San Agustin kulturguneko arte eszeniko emanaldiak.

> ARTE ESZENIKOAK I. Esteban Jon Kepa Garrok, Astarloa Kulturgintza erakunde publikoko presidentea, eta Arantza Arrazolak, kulturguneko arduradunak, martitzenean aurkeztu zuten 2014ko Uda Kalean Bizi. Hamar ikuskizuneko egitaraua da. Arrazolak azpimarratu duenez, "emanaldiak kalean izateak ohikoaz aparteko ikuskizunak eskaintzeko aukera ematen du",

eta hori aprobetxatu nahi izan dute programazioa lotzerakoan. Malas Compañías taldearen *Txatarra* zirku ikuskizunak abiaraziko du Uda Kalean Bizi. Aritza Rodríguez zaldibartarra da konpainia horretako kideetako bat. Hilaren 27an izango da emanaldia, 20:00etan, musika eskola aurreko parkean.

Musika eskolakoaz gain, beste sei kokaleku ere hautatu di-

tuzte kultur emanaldien kokagune izateko. Horietariko bi, Kastejon eta Ibaizabal parkeak, lehenengoz probatuko dituzte. Kastejon parkean, uztailearen 12an, Rouge Elea konpainiak *Calao* ikuskizuna eskainiko du: zuhaitz batetik dantza eta zirkua nahasten dituen ikuskizuna eskainiko dute, 20:00etan. Gero, bertaratzen diren ikusleak jarraian udaletxeko plazan

izango den emanaldira joatera gonbidatuko dituzte, Ortzi Acostaren *Ilusión* zirku ikuskizuna izango delako gozagai 20:45ean. Ibaizabal parkean, bestalde, bertako musikariak izango dira protagonista: soka eta perkusio kontzertua eskainiko dute musika eskolako hainbat irakasle, Quinteto Yacambú izeneko taldean batuta. Uztailearen 12an, 20:00etan izango da hitzordua.

Mediterraneoko musika egiten duen Banda La Colonia taldearen musika (uztailearen 4an), Pez Limbo gasteiztarren keinu antzerkia (uztailearen 5ean), Maite Arreseren eta Mau Ziemkiewicz *Amodiozko ipuinak* (uztailearen 17an), Che y Moche konpainiaren *El funeral* arrakastatsua (uztailearen 19an), Kukai dantza taldearen *Gelajauziak* ikuskizuna eta Kriskitin taldeak antolatzen dituen Durangon Folk dantza saioa ere jasoko ditu ekaineko eta uztaileko iluntze eta gauetan Kalean Bizi jaialdiak.

Amaitzeko, irailean Tárrega-ko antzerki jaialdia aurkeztuko duen *Andante* lanaren entsegu batean parte hartzeko aukera luzatuko die Zornotzako Markeliñe taldeak, uztailearen 27an, 20:00etan, Zumalakarregi kalean batzen diren ikusleei.

GEURE DURANGALDEA

IÑAKI ETXEZARRAGA 'ETXE'

Musikaria



Teknologiak eta musika

Musika entzuteko modu desberdinak egon dira historian barrena. Azken berrogei urteetan aldaketa nabarmenak eman dira teknologia berrien eraginez. Biniloak, kaseteak eta CDak bata besteari lekua kenduz ibili dira beti. Gaur egun formatu digitalak nabarmen bereganatu du musikaren merkatua.

Musikaren merkatua aldatuz doan bezala, artistek ere beraien lanak aurkezteko formatuak aldatu beharko dituzte

Lehenengo batean gaztetxo batek esan zidan ez zekiela zer zen kasete bat. Harrituta gelditu nintzen, baina kontuan edukiz gero duela hamar urtetik hona ez dela halakorik saltzen, eta gaur egun Internet bidez edozein musika etzun dezakegula, CDa zer den ere askok ez dute jakingo laster.

Garaiak aldatuz doaz, eta musikaren merkatua ere aldatuz doan bezala, artistek ere beraien lanak aurkezteko formatuak aldatu beharko dituzte. Hamar kantuz osaturiko disko bat kaleratzea ez du askorik merezi.

Gero eta disko gutxiago saltzen dira, eta Spotify erabiliz gero, edozein kanta eskuratu dezakegu ordenagailuan edo mugikorrean, eta autoan ere mugikorra konektatuta erabili dezakegu. Beraz, uste dut disko fisikoak etorkizun laburra duela.

Unai Iturriaga izendatu dute koplak txapelketan 'txapalateru' berri

100 entzuletik gora batu ziren joan zen barikuko Plateruenerako II. Koplak Txapelketa jarraituzera



Bertsolari gazteentzako plaza izan zen Plateruena.

> BERTSOLARITZA M. Onaindia Durangaldeko II. Koplak Txapelketa jokatu zen joan zen barikuan, Platerueneran, eta Unai Iturriagak jantzi zuen *txapalateru*. Afalosteko giro atseginean jokatu zen txapelketaren bigarren edizioa. Itsua musikariak (Beat Salad Records) ipinitako abestiekin hasi zen ikuskizuna, eta hamar bertsolariak behetik gorantzako saioa osatu zuten. Partaide guztiek batera kantatuta amaitu zen saioa, gauerdia pasa eta ordu eta erdira.

Unai Iturriaga izan zen zaileen iritzi saioa egile onena. Izan ere, ikus-entzulen saria da txapelketa honetan

ematen dena; ez dago epaimahai ofizialik. Taldetxotan banatuta puntuak eman, eta horrela sailkatzen ziren bertsolariak hurrengo faseetara. Buruz burukoan iazko txapeldunagaz, Beñat Ugartetxeagaz jokatu zuen *txapalateru* Iturriagak. Kartzelako gairako objektu bat eman zieten: giltza bat. Hiru minutuan, geratu barik, giltza horri kantatu zioten biek. Iturriagak sentimenduetatik jo zuen, eta Ugartetxeak umoretik.

Baina irabazleaz gainera, han sortutako giroa izan zen protagonista. 100 lagunetik gora batu ziren, eta sailkatu zirenak zein sailkatu bakoak gogoz txalotu zituzten. Bertsolari gazteentzako plaza ere izan zen, eta, besteak beste, Peio Azkaratek bat baino gehiago harritu zuen, erakutsitako freskotasunagaz.

uda kalean bizi 2014

Malas compañías Txatarra Ekainak 27, ostirala 20:00 - Musika Eskola Parkea

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893

Tarsiciok txapela defendatuko du VI. Balcón de Bizkaia Rallyan

Balcón de Bizkaia Rallya, Durangaldeaz gainera, Arratiara helduko da bihar



lazko garailea, Iban Tarsicio, bihurgune batean.

> MOTORRA Markel Onaindia Badator VI. Balcón de Bizkaia Rallya. Durangalde Racing Elkarteak antolatzen duen probak

errepideak hartuko ditu bihar, eta inguruetako automobilismozaleak erakarriko ditu. Lau tartetan banatuta jokatu da

txapelketa, eta, nobedade lez, Arratiara ailegatuko da. Izan ere, Diman eta Zeanurin garatuko dira zati bi. Bertan, Iban Tar-

sicio abadiñarrak iaz jantzitako txapela defendatuko du.

Talde antolatzaileko kidea da Aketza Santacoloma. Azaldu duenez, duela hiru hilabete hasi ziren rallya prestatzen, eta, Arratiara hedatu denez, Gorbeialde Racing eta Agiñona Racing taldeen laguntza eduki dute aurten. Goizez ibiliko dira Diman eta Zeanurin, eta arratsaldean Goiurien eta Bizkaiko begiratokian, bakoitzean pasada bi egiteko. "Zeanuriko tartea oso polita da, jendeari asko gustatzen zaio korritzeko eta ikusteko", Santacolomaren arabera.

Santacolomaren ustez, Gorka Antxustegi da rallya irabazteko faboritoetako bat. Etxeko kasuan, Iban Tarsicio aipatu du. Garikoitz Flores nafarrak Durangaldeko racing taldeagaz parte hartuko du, eta hori ere onenen artean ikusten du antolatzaileak. Txema Uzkudun, Ander Arana... faborito zerrenda ez da laburra.

Guztira, hamasei lagunek gidatuko dute Durangalde Racing Elkartearen babespean. Horietatik hamar izango dira eskualdekoak, Tarsicio kontuan

hartuta: Jon Zalloetxebarria zornotzarra, Josu Solozabal ermuarra, Dani Benito abadiñarra, Oier Gorrotxategi durangarra, Paco Benitez berriztarra, Unai Solaguren abadiñarra, Imanol Ramirez zornotzarra, Iban Leanizbarrutia berriztarra eta Eneko Goiriena durangarra.

Aurtengorako aurreko edizioetako helburu bera daukatela adierazi du Santacolomak: "Durangaldean ez dago honelako lasterketarik, eta beti gura izan dugu jendea erakarri". Horretaz gainera, herritarrei kirola erakustea ere gura dute.

Zaleei segurtasuna zaintzeko eskatu die Santacolomak, leku altuetan egoteko, eta, batez ere, disfrutatzen.

ORDUTEGIA

09:10	Dima
09:55	Zeanuri
11:30	Dima
12:15	Zeanuri
16:30	Goiuria
17:15	Bizkaiko begiratokia
18:56	Goiuria
19:41	Bizkaiko begiratokia
21:00	Sari banaketa Landakon

> PARAPENTEA J. Derteano Elorrioko Larrano Parapente Taldeko Iñigo Gabiria elorriarra eta Gorka Uribe berriztarra, Jose Jabier Alvarez gernikarraz batera, parapentean Iberiar penintsulan egin den hegaldirik luzeenetarikoaren protagonista izan dira: 200 kilometro bost ordu eta erdian, 3.800 metroraigo garaieran une batzuetan.

Eguenean Extremadura (Espainia) joan ziren, aire presioak aldeko izango zituztelakoan, eta horrela izan zen. Lehen egunean 135 kilometro egin zituen Uribe, eta Gabiriak 25 bat bakarrik, ez zuelako aire korronterik hartu. Barikuan hegaldi laburrak egin zituzten hirurek. Zapatuan, ordea, espero ez zuten hegaldia irten zitzaizen: 200 kilometro egin zituzten hirurek parapentean, Montanchez herritik irten (Caceres, Extre-

madura) eta Cordobaraino (Espainia): "Itzela izan zen, eta asko gozatu genuen", adierazi du Gabiriak. Uribe aurten Iparraldeko Ligako lasterketa bat irabazi du: "Denbora gutxian asko hobetu du, eta parapentean etorkizun itzela duela iruditzen zait".

Pirinioak zeharkatuz

Uztailaren 13tik aurrera, Hondarribian (Gipuzkoa) hasi eta Gironan (Katalunia) amaitzen den Xpyr parapente proban parte hartuko du Iñigo Gabiriak. Bi urterik behin egiten den proba da, eta orain bi urte irabazi egin zuen. Bera izan zen Pirinioak zeharkatu, eta 440 kilometroak osatzen aurreneko parapentezalea. Aurten "ia ezinezko" ikusten du garaipena errepikatzea. "Munduan zehar entzutea irabazi duen lasterketa da, eta munduko onenak etorriko dira".

200 kilometroko hegaldia egin dute parapentean Gabiriak eta Uribek

Lagunartean joan, eta penintsulako hegaldirik luzeenetarikoaren irten zaie



Iñigo Gabiria eta Gorka Uribe, atzealdean parapentea dutela.



**IURRETA
ELEIZATEKO
UDALA**



Tel.: 946 201 200
www.iurreta.net

IURRETA UDALERRIKO ENPRESA-PROIEKTUEN VI. LEHIAKETARAKO DEIALDIA

Helburua: Iurreta herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei.

Oinarriak: Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren webgunean eskura daitezke.

Proiektuak aurkezteko: 2014ko ekainaren 1etik urriaren 31ra bitartean, Udalaren bulegoetan (Bidebarrieta, 5).

Saria: 6.000 euro



Elorriok sasoi bateko izarrak omenduko ditu urteurrenean

Zapatuan, sortu zeneko 90. urteurrena ospatu du Elorrio futbol taldeak



1953an eta San Mamesen Bigarren Mailako finala jokatu zuen taldea.

> FUTBOLA Joseba Derteano Elorrio futbol taldeak sortu zeneko 90. urteurrena ospatuko du zapatuan. Horretarako, Durangaldeko eta Elorrioko jokalariek ohien arteko partidua antolatu dute. Ekitaldia sortu zenetik hona izandako jokalaria omentzeko ere baliatuko dute. Denen ordezkari lez, 50eko hamarkadako taldea aukeratu dute, eta,

zehazki, 1953an Bigarren Mailako finala jokatu zuen taldea.

1923an sortu zen Elorrio futbol taldea, baina hurrengo urtean ofizialdu zuten. Harrezkero 90 urte joan dira. Bere historian une esanguratsu asko izan ditu, eta horietako bat 1953ko martxoaren 22ko finala izan zen. Egun horretako protagonista 50eko hamarkadaren lehen er-

diko talde "mitikoa" izan zen Josean Tabera klubeko presidentek gogoratu duenez. Bigarren Mailako (gaur egungo Maila Gorena edo Ohorezko Maila) finala jokatu zuten Lutzanaren kontra, San Mames zelaian. Partidu gogor baten ostean, luzapenera heldu ziren, eta minutu horietan Lutzana gehiago izan zen (4-1). Elorriok jokalaria bat gutxiago-

gaz amaitu zuen partidua, lesio baten ondorioz. Zoritxarrez, orduan aldaketa bakarra (atezaina) ahalbidetzen zuen araudiak.

Zapatuko omenaldi ekitaldia 16:40 inguruan hasiko da. Oraindik bizirik dauden sasoi hartako jokalaria batuko dira Eleizalden: Pedro Eriz, Jose Antonio Garcia, Gaizka Ugaldea eta Erminio Urizar. Iñaki Gallastegik eta Jose Kortabarriak ezin izango dute etorri. Dantzak eta aureskua eskainiko dizkiete, eta ohorezko sarea egingo dute. Ondoren, 17:00etan, jokalaria ohien arteko partidua hasiko da. Partiduaren ostean jai giroak herrigunean jarraituko du; trikitariaren laguntzagaz denek batera egingo dute futbol zelaitik herrigunera arteko bidea.

Gaur egun Ohorezko Mailan Elorriok gaur egun bizi duen kirol egoerak ez du sasoi batekoen batera inbidiarik. Ohorezko Mailan dabil, eta aurtun mailari eustea lortu du, azken partiduetara arte sufritu beharra izan duen arren. Maila berean dabil lurretako ere. Beraz, gaur egun, Durangaldeko hirugarren talderik inportanteena da Elorrio lurretakogaz batera, Bigarren B Mailan dabilen Amorebietaren eta Hirugarren Mailan diharduen Durangoko Kulturalaren atzetik.

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbia

Wilkinson, izan handia

Azken hamarkadetan errugbian aritutako jokalaririk mediatikoenari agurra esateko momentua heldu zaio. Sir Jonny Wilkinsonen maiatzaren 25ean 35 urte bete zituen, horietatik hamazazpi goimailan.

18 urterekin egin zuen debuta Ingalaterrako selekzioarekin, debutariaren artean gazteena izan zen. Bere lorpenen artean: Sei Nazioen Torneoeko lau txapelketa.

Berak islatzen zuen jokalaria totalaren irudia: hanka fina izan du betidanik, eta estilo berezia sortu zuen hagetara baloia jaurtitzeko unean; baloia eskuetan zuela beti bilatzen zuen zirikituren bat aurkariaren artean sartzeko. Defentsan ere, txikia izanik, gogotsu eta indartsu aritzen zen plakatzerakoan.

Zaleok beti gogoratuko dugu 2003ko Munduko Txapelketako finala. Australia eta Ingalaterra 80 minutuan jo eta ke aritu ondoren, luzapenera heldu ziren. Sidneyko Telstra Stadiumean zeuden 85.000 ikusleak zur eta lur geratu ziren, luzapeneko azken minutuan Jonnyk baloia eskuan hartu, eta droparen bitartez Ingalaterrari garaipena eman zionean. Urte hartan munduko jokalaria onenaren saria eman zion IRBk (Munduko Errugbi Federazioak).

Azken denboraldietan ere sekulako maila erakutsi du. Amaiera borobila eman dio izar txikiak bere ibilbideari; agur eta ohore sir Jonny! Joko zabaltzaile lanetan aritu garenok beti gogoan izango zaitugu.

Pauline Ferrandek irabazi du Emakumeen Bira

Rabobank taldea jaun eta jabe izan da Biran



Pauline Ferrand podiumean.

> TXIRRINDULARITZA J.D. Rabobank taldeak erakustaldia eman du Emakumeen Biran. Estatu mailako lasterketarik prestigiotsuena bere monopolioa balitz bezala, lau etapak irabazi ditu; podiumean ez da beste inorentzako tokirik izan, eta hori gutxi balitz, mendiko, erregulartasunaren eta talderik onenaren sailkapenak irabazi ditu.

Pauline Ferrand gazteak lehenengoz irabazi du Emakumeen Bira; Iurretako eta Mungia (Bizkaia) etapetan ere nagusitu da. Oñatiko eta Ataungo (Gipuzkoa) etapak, aldiz,

Marianne Vos munduko txapel-dunarentzat izan dira. Ataungo podiumak ederto laburbiltzen du aurtengo Biraren nondik norakoa: Ferrandek Marianne Vos (bigarren) eta Anna Van der Breggen (hirugarren) taldekideak izan ditu alde banatara. Iazko irabazle Emma Johanssonek zortzigarren tokiagaz konformatu behar izan du, Ferrandengandik lau minutura.

Ane Santesteban izan da Birako lehenengo euskalduna, irabazlearengandik hamaika minutura, eta Irene San Sebastian (Bizkaia-Durangoko) bigarrena.

Trigueros emakumerik onena Hiru Handietan

Orain urte bi hirugarren geratu ostean, aurtun azkarrena izan da emakumeetan Silvia Trigueros

> KORRIKA J.D. Team race land taldeko Silvia Trigueros (barakaldarra, Abadiñon bizi da) Hiru Handiak lasterketa ezaguna irabazi zuen emakumeetan joan zen asteburuan denbora honekin: 12.48.22. Gorbeia, Anboto eta Aizkorri zeharkatzen ditu lasterketa gogor honek. Urte birik behin antolatzen dute lasterketa, eta duela urte bi Silvia Trigueros hirugarren tokian sailkatu zen.

Bere atzetik sartu ziren Elena Calvillo eta Jone Urkizu, bigarren eta hirugarren. Sailkapen orokorrean Javi Dominguez izan zen irabazlea: 11.00.15.

Frades eta Bat Basque Team Bestalde, Gurutze Frades triatleta iurretarrak jakinarazi duenez, aurrerantzean goimailako kirola sustatzeko helburua duen Bat Basque Team taldeko partaide izango da.

Iñurrategiren espedizioa grabatuko du Bideografikek

David Maeztu kameraria espediozoko parte izango da

> MENDIA J.D. Wop fundazioak eta Alberto Iñurrategi, Mikel Zabalza eta Juan Vallejo mendigoizaleek Wop Peak proiektua aurkeztu dute asteon. Hiru mendigoizaleek 6.000, 7.000 eta 8.000ko mendibana igoko dute 2015eko udaz-

kenera bitartean; astelehenean Pakistanera abiatuko dira hiruhiru mendigoizaleak Paiju Peak mendiarri (Karakorum, 6.610 metro) aurre egiteko. Espedizio hori irudietan jasotzeko ardura Durangoko Bideografik ekoiztetxeak izango du, David Maeztu

kamerari durangarraren bitartez.

Iñurrategi, Vallejo eta Zabalza iaz ere saiatu ziren Paiju Peak hegoaldeko paretan igotzen, baina ezin izan zuten goraino igo. Aurtun berriro saiaturiko dira.

Azkenengo erronka biak Himalayan izango direla jakinarazi dute: Jannu mendia (7.710 m) hegoaldeko 2015eko udaberriaren, eta Cho Oyu mendia (8.201 m) hego-mendebaldeko 2015eko udazkenean.

OSASUN GIDA


FISIOTERAPIA


**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin eustea, traumatologia, kirola, auto istripua, drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...

Iturriza, 44 - behea ezkerre
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593


PSIKOLOGIA


JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11


PODOLOGIA


JON GERRIKAETXEARRIA


Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13



**GOIATZ MURUA
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13


ESTETIKA


AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09


ODONTOLOGIA


**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2 - C behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13


OPTIKA


ZENTRO OPTIKOA

Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren ikusmena, ikusmen terapia, audiometria, NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13


PEDAGOGIA


**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

*Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia*

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD
Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MONTEVIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukalde eta egongela. Erdi berria.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukalde eta egongela balkoiarekin. Garaiea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelekuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukalde, office-a, 2 komun eta egongela. Garaiea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m². Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaie itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukalde eta egongela terrazarekin. Garaiea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekot apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaie bikoitza eta trastelekuak.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukalde balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukalde eta egongela balkoiarekin. Guztiz berritua. Trastelekuak.

LURSAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m²-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m²-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m². Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m² eta 3.455 m²-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m²-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m²-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatzeke.

BERRIZ

- MURGOITIO kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

- EITUA: 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baserria.

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekotak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukalde, jangela, egongela, logela 2 eta komun 2.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukalde, logela 2 eta komuna.
- ARKOTZA: 4 logela, sukalde, egongela, komuna eta bainugela. Trastelekuak.
- ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna. Garaiea eta trastelekuak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara. Trastelekuak.
- ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garaiea eta ganbara.
- ERROTARITUENA: Logela 2, sukalde, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garaiea aukeran eta ganbara.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. Garaiea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukalde, egongela eta 3 komun. Ganbara.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxa, sukalde, 3 logela eta komuna.

- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukalde, egongela eta komun 2. Balkoia. Garaiea aukeran.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukalde, egongela eta komuna. Garaiea.
- JUAN ITZIARCO AUZUNEA: Logela 2, sukalde, egongela, komun 2 eta lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukalde, egongela eta komun 2. Garaiea eta trastelekuak.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukalde, egongela eta komuna. Trastelekuak. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Garaiea eta trastelekuak.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukalde, egongela eta komuna.
- MURUETATZORRE: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Garaiea eta trastelekuak.
- MURUETATZORRE: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Garaiea eta ganbara.
- OLLERIA: 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. Jantzia. Garaie itxia 2 kotxerentzako eta trastelekuak.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Garaiea eta trastelekuak.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Garaiea eta trastelekuak.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Ganbara.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garaiea eta trastelekuak.
- SASIKOA: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garaiea eta trastelekuak.
- UNDATZORRE: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna.
Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO



- Ezkurdi. 174 m². 5 logela, egongela handia, jangela, sukalde handia, bainugela, 8 horma armairu. Balkoi 2 eta trastelekuak. **290.000€**.

DURANGO



- Alde Zaharra. Logela 2, egongela, sukalde jantzia despentsarekin eta komun 2. Balkoia. Berogailua. Igogailuarekin. **190.000€**.

DURANGO



- Berrizteko. 72.280 m² ireki. Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Trastelekuak. Etxebizitza solairu bakarrekot eraikinean, binakako etxetxoeekin. Ez dauka bizilagunik ez goialdean, ez behealdean. **149.000€** (prezio negoziagarria).

DURANGO



- Etxebizitza salgai, osorik berrizteko. Logela 2, egongela, sukalde eta bainugela. Etxebizitza osoak kanpora ematen du, hegoaldera, iparraldera eta mendebaldera. **89.000€** (prezio negoziagarria).

DURANGO



- Aramotz. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna eta despentsa. Jantzia. Bizitzen sartzeko moduan. **99.000€**.

DURANGO



- Artekalea. Berrizteko. 60 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. **99.000€**.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- OIÑITURRI: Ezkurdi. 140 m². 4 logela, komun 2, egongela, sukalde eta esekitokia. Ganbara. Garaiea eta trastelekuak. Eguzkitsua.
- ANDRA MARIA: Atikoa. 107 m². 3 logela, komun 2, sukalde eta egongela-jangela.
- F.J. ZUMARRAGA: 4 logela eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. **186.000€**.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, komun 2, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara eta garaiea. **250.000€**.
- GARAI: Familibakarra. 2.900 m²-ko lursailarekin. 4 logela eta 3 komun. Ikuspegi politak. **450.800€**.
- BERRIZ: Txaleta. 365 m². Estreinatzeke. 1.270 m²-ko lursaila. **600.000€**.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Etxebizitza altua. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garaiea eta trastelekuak. **266.000€**.
- F.J. ZUMARRAGA: 100 m². 3 logela eta egongela. Terraza. Igogailua. Guztiz berritua. **216.350€**.
- MATIENA: Trañabarren. 3 logela eta komun 2. Terraza. Eguzkitsua. Ganbara. **190.000€**.
- DURANGO: Erdi berria. 90 m². 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukalde esekitokiarekin. Ganbara eta garaiea. **238.000€**.
- TXIBITENA: 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde esekitokiarekin. Terraza 2. Ganbara eta garaiea.
- ANDRA MARIA: 105 m². 3 logela, egongela eta sukalde. **155.000€**.
- SASIKOA: 3 logela eta komun 2. Terraza. Ganbara eta garaiea. Eguzkitsua.
- BERNARDO GABIOLA: Beheko solairua. 3 logela eta sukalde. Bizitzen sartzeko moduan.
- DURANGO: 3 logela, komunak, egongela terrazarekin eta sukalde balkoiarekin. 26 m²-ko garaiea. Ganbara. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **183.000€**.
- IURRETA: Bidebarrieta. 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **186.500€**.
- DURANGO: Berritua. Logela 2, sukalde office-arekin eta egongela. **138.000€**.
- MATIENA: 60 m². 3 logela. Ganbara. **108.000€**.
- ATXONDO: 90 m². 3 logela, komun 2, egongela, sukalde eta despentsa. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. **186.000€**.
- ABADIÑO: San Trokaz. Logela 2 eta komuna. Garaiea eta trastelekuak.
- BERRIZ: Lehendakari Agirre. 3 logela, sukalde, komuna eta egongela. Terraza. **149.500€**.
- MONTEVIDEO: 3 logela, komuna, egongela eta komuna. Igogailua.

AUKERA

- ABADIÑO: Arlozabal. Logela 2 eta komun 2. Ganbara eta garaiea. **155.000€**.
- IURRETA: Uralde. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Guztiz berritua. Igogailua. Trastelekuak. **130.000€**.
- ARAMOTZ: 3 logela. Eguzkitsua. Berogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **115.000€**.
- ZALDIBAR: Erdigunean. 3 logela. Berritua. Terraza. Berogailua. Eguzkitsua. **126.000€**.

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- ARTEKALEA: 35 m². Egokitua. **600€**.
- J.A. AGUIRRE: 60 m². Egokitua. **600€**.
- OIZ: 60 m². **84.000€**.
- LANDAKO: 50 m². Egokitua. Komertziala.
- SAN IGNAZIO: 125 m². Negozioa funtzionamenduan. Salgai edo alokairuan. **900€**.
- J.M. ALTUNA: 45 m². Egokitua. **550€**.
- ABADIÑO: Muntzaratz. 86 m²-ko lonja. Alokairuan.

www.inmoetxetxo.com



GREMIOEN GIDA

 **DEKORAZIOA**

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberriak egiten ditugu.

Eitua Industrialden, 45 Garain A - Berriz.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

 **GARBIKETA**

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

 **LOREZAINNTZA**

Jardines Patxi Lokategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

 **ITURGINTZA**

urtiaga
Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 20an, 22:30ean,
Durangoko Plateruenean

Musika elektronikoa

Musika elektronikoaren inguruko Friends izeneko hitzordua izango da gaur, Durangoko Plateruenean. Josu Aranburuk zabalduko du gaua, bere kanta zerrendagaz giroa berotuta. Ondoren ariko da Ruben Kostas durangarra, bere doinu alai eta dantzagarriagoekin; eta lbailok itxiko du gaua, musika ilun eta undergroundagoaz. Ruben Kostas DJ durangarraren ekimenez jaio da I. Friends jaialdia.

Antzerkia

:: ELORRIO

Ekainaren 21ean, 17:00etan, eta ekainaren 22an, 13:00etan eta 18:00etan, **Arrapaladan antzerki taldearen 'Ate debekatuaren ostan'**, San Jose ermitan.

:: IURRETA

Ekainaren 20an, 18:00etan, **Zirika Zirkus taldearen 'Txalestrup'**, Amilburun. 20:30ean, **Salitre taldearen 'Rico rico'**, Dantzari plazan.

Ekainaren 21ean, 18:00etan, **Malas Compañias taldearen 'Txatarra'**, Amilburun. 20:30ean, **Turukutuparen 'Rezikletas'**, Dantzari plazan.

Ekainaren 22an, 13:30ean, **Toborro magoaren 'Magia eszenatokian'**, Dantzari plazan.

Erakusketa

:: DURANGO

Ekainaren 10etik 29ra, **Segun Lazkanoren 'Ero'**, Plateruenean. Begira Photo.

Ekainaren 29ra arte, **Rous Boisierren 'Pérdida' eta Goiuri Aldekoa-Otaloraren 'Bosnian Déjà Vu'**, Arte eta Historia Museoa. Begira Photo.

Ekainaren 29ra arte, **Godzillaren 'Cabanga'**, Merkatu plazan. Begira Photo.

:: ZALDIBAR

Uztailaren 12ra arte, **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra**, udaletxean.

Musika

:: DURANGO

Ekainaren 20an, 22:30ean, **Friends eta musika elektronikoa: Josu Aramburu + Ruben Kostas + Ibailo**, Plateruenean.

Ekainaren 22an, 19:30ean, **Bart... Sax! Sax big band**, Plateruenean.

Ekainaren 26an, 18:00etan, **Rock Izar Eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua**, Plateruenean

:: ZORNOTZA

Ekainaren 20an, 21ean eta 22an, egun osoan, **Haizetara kale musika lehiaketa**, herrian zehar.

Ekainaren 21ean, 10:30ean, **Musika Eguneko umeen danborrada, eta, ondoren, txaranga-ren kalejira**, herrian zehar.

Dantza

:: DURANGO

Ekainaren 25ean, 17:30ean, **Irrien Lagunak: Ane eta piratekin parrandan!**, Plateruenean.

Bakarrizketa

:: DURANGO

Ekainaren 27an, 22:00etan, **Txabi Franquesa + David Broncano, bakarrizketan**, Plateruena Kafe Antzokian.

Zinema

:: DURANGO

Ekainaren 28an, 19:00etan, **'Emak bakia' filmaren emanaldia eta mahai ingurua**, Plateruenean. Begira Photo jaialdia.

Bertsoak

:: DURANGO

Ekainaren 21ean, 21:00etan, **Igor Elortza eta Unai Iturriaga**, Andra Mariko elizpean. Begira Photo jaialdia.



:: DURANGO | ZUGAZA

Perdona si te llamo amor

Zuzendaria: Joaquín Llamas

- barikua 20: 19:30/22:00
- zapatua 21: 19:30/22:30
- domeka 22: 19:00/21:30
- astelehena 23: 18:30/21:00
- martitzena 24: 20:00

Tarzan

Zuzendaria: Reinhard Klooss

- zapatua 21: 17:00
- domeka 22: 16:45

Yo, Frankenstein

Zuzendaria: Morgan Neville

- martitzena 24: 18:00

2. ARETOA

Yo, Frankenstein

- barikua 20: 19:30/22:00
- zapatua 21: 19:30/22:30
- domeka 22: 19:00/21:30
- astelehena 23: 18:30/21:00

Pancho

Zuzendaria: Tom Fernández

- zapatua 21: 17:00
- domeka 22: 16:45

:: ZORNOTZA

No hay dos sin tres

Zuzendaria: Nick Cassavetes

- barikua 20: 20:15
- zapatua 21: 19:30/22:30
- domeka 22: 20:00
- astelehena 23: 20:15

EKAINEN AGENDA

20

VIII. KALEZ KALE

18:00 Zirika zirkusen 'Txarlestrop' Amilburu plazan.
20:30 Salitreren 'Rico rico' Dantzari plazan.

21

NAZIOARTEKO MUSIKA EGUNA

10:30 Umeen danborrada. Jarraian kalejira 'Kalean' txaranga taldearekin.

VIII. KALEZ KALE

18:00 Malas kompaniasen 'Txatarra' Amilburu plazan.

22

VIII. KALEZ KALE

20:30 Toborro magoa. 'Magia eszenatokian' Dantzari plazan.

23

IURRETAKO UME ETA GAZTEENTZAKO KULTUR ASTEARTEA IBARRETXE

9:30 - 13:00 2-8 urteko umeentzako ludoteka.

9:30 - 11:30 Fofucha tailerra.

11:30 - 13:00 Birziklapen tailerra.

17:00 - 19:00 Umeentzako jokoak San Miguel plazan.

SAN JOAN BEZPERA

18:30 Jaietako kartelak ikusgai jarriko dira.

20:30 Aferia herriko plazan. Euria eginez gero, Olaburu frontoian.

Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin.

22:30 San Joan sua piztuko da, eta ohiturazko abestia kantatuko da. Jarraian, erromeriak jarraituko du.

24

IURRETAKO UME ETA GAZTEENTZAKO KULTUR ASTEARTEA IBARRETXE

9:30 - 13:00 2-8 urteko umeentzako ludoteka.

9:30 - 11:30 Fofucha tailerra.

11:30 - 13:00 Birziklapen tailerra.

17:00 - 18:30 Zirko tailerra.

18:30 Akrobazia agerraldia.

25

IURRETAKO UME ETA GAZTEENTZAKO KULTUR ASTEARTEA IBARRETXE

9:30 - 13:00 2-8 urteko umeentzako ludoteka.

9:00 - 10:30 Fofucha tailerra.

11:30 - 13:00 Antzerki tailerra.

17:00 - 19:00 Kiroiak.



Ekainaren 21ean, 20:30ean, Iurretako Dantzarin

Rezikletas

Gasteizko Turukutupa taldearen ikuskizuna dakar bihar, 20:30erako, Iurretako Kalez Kale jaialdiak. Aldi berean aktore eta musikari legez diharduten lau artistak eskainiko dute birziklatutako materialekin sorturiko instrumentuen emanaldia.

Denborapasak

1

2								1
			9		6			
	9	1						8
4	1	5	2	6	9	3	7	8
			7		1			6
6		8	5					1
						5		7
	6			4				
9	3		1	2				

2

		7			6	8	1	
5	8		4					
				9	7			
2		6			6	8	7	
					5	1		
7								
	4	3						7
	2		7		3			4
			5					6

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguziteneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak **Aritz**, Ekainaren 27an 2 urte bete behar dozuz. Mosu potolo bat familia ta lagunerekin partez!



> Gure kirolari bikainak bost urte bete ditu! Zorionak **Irati!** Paula, amatxo eta aita txoren partez musu handi bat.



> **Iraia**, zapatuan hiru urte beteko dozuz. Zorionak laztana, eta mosu handi bat etxeko guztion partez.



> Zorionak **Lizar!** Jada urtetxo 1 pasau da munduratu zinenetik. Mosutxo pila-pila patata tortila amatxo, aita txo eta Intzan partez.



> Datorren astelehenean, 23an, urteak beteko dituzu. Zorionak **Jaione** etxekoekin partez, eta egun ona izan! Besarkada bero-bero bat.



> Zorionak **Karol**, T&T-ren partez. Egun ederra pasatuko duzula espero dugu. Elkar ikusten dugunean afari bat zor diguzu. *T'estimamos molt.*



> Zorionak amama **Kresen**. Ekainaren 13an 88 urte bete zenduzen. Segi holako martxosa, ta patxo haundi bat!



> Zorionak **Txaber Barruetabeña!** 5 urte egin dozuz. Mosu haundi bat etxeko danen partez.



> **Lore** eta **Santi** ekainaren 7an ezkondu ziren, Iurretan! Zorionak bikote Gauargiko lagun guztien partez! Muxu bana, bereziki Vane eta Juleneren partez.



> Zorionak bikote, ondo pasau biharko egune, ta disfrutau topera. Mosu bana zuen lagunerekin partez.

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383



> Zorionak **Maddi Ramos!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

BARIKUA, 20 - 09:00-09:00
 • **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
 • **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
 09:00-22:00
 • **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
 • **Sarasketa, Diego** (Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza)
ZAPATUA, 21 - 09:00-09:00
 • **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 09:00-13:30
 • **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
 • **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
 • **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
 • **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
 • **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
 • **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
 • **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 • **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
 • **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
DOMEKA, 22 - 09:00-09:00
 • **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
 • **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
 09:00-22:00
 • **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
 • **Sarasketa, Diego** (Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza)

ASTELEHENA, 23 - 09:00-09:00
 • **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
 09:00-22:00
 • **Sarasketa, Diego** (Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza)
 22:00-09:00
 • **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
MARTITZENA, 24 - 09:00-09:00
 • **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
 09:00-22:00
 • **Sarasketa, Diego** (Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza)
 22:00-09:00
 • **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
EGUAZTENA, 25 - 09:00-09:00
 • **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
 09:00-22:00
 • **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)
 • **Sarasketa, Diego** (Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza)
 22:00-09:00
 • **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
EGUENA, 26 - 09:00-09:00
 • **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 09:00-22:00
 • **Sarasketa, Diego** (Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza)
 22:00-09:00
 • **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria **94 681 09 49**
 Osakidetza **94 600 72 00**
 Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

Euskotren **902 54 32 10**
 Bizkaibus **94 448 40 80**
 Pesa **902 10 12 10**
 Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

Abadiño **94 681 44 70**
 Matiena **606 459 988**
 Durango Geltokia **94 681 10 01**
 Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
 J.L. Uriarte **670 402 002**
 I. Estebez **670 678 273**
 M. Galeano **670 409 330**
 Iurreta **94 620 15 65**
 Taxi auzunea **688 618 690**
 Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> UDALAK

Abadiño **94 621 55 30**
 Atxondo **94 682 10 09**
 Berriz **94 682 45 84**
 Durango **94603 00 00**
 Elorrio **94 658 27 12**
 Garai **94 681 63 93**
 Iurreta **94 620 12 00**
 Izurtza **94 681 35 48**
 Mallabia **943 17 14 61**
 Mañaria **94 681 89 98**
 Otxandio **945 45 00 20**
 Zaldibar **94 682 70 16**

> UDALTZAINGOIA

Abadiño **94 621 55 33**
 Berriz **94 682 40 36**
 Durango **94 603 00 00**
 Elorrio **94 682 02 18**
 Iurreta **94 620 08 88**

17° 29° ZAPATUA



17° 27° DOMEKA



16° 26° ASTELEHENA



16° 27° MARTITZENA



SUDOKUEN SOLUZIOAK

1	9	3	2	4	5	6	7	8
4	8	6	3	1	7	5	2	9
7	5	2	6	8	9	3	4	1
6	4	1	5	2	6	8	3	7
2	3	7	8	6	1	4	5	6
8	9	5	4	7	3	6	1	2
5	2	4	7	6	8	1	9	3
6	7	9	1	3	4	2	8	5
3	1	8	1	3	5	6	7	4

2

4	9	8	5	2	1	7	3	6
6	3	1	7	4	8	2	9	5
7	2	5	3	6	9	4	8	1
1	6	2	4	3	5	8	7	9
9	5	4	1	1	8	7	6	3
8	7	3	6	9	2	5	1	4
3	8	9	2	5	4	1	6	7
4	4	7	6	1	6	3	5	8
5	1	9	8	7	3	4	6	2

1

“Gazteei abesbatzen mundura gerturatzeko deia egingo nieke”

Musika irakaslea izateaz gainera, Zornotzako abesbatza bi zuzentzen ditu Izagirrek

> AKUILUA Jone Guenetxea **Zornotzan abesbatzek tradizio handia dutela ezin daiteke ukatu. Izan ere, sei koralek dihardute une honetan. Zornoza koralek zabaldu zuten bidea orain 60 urte, eta, harrezkero, beste hainbat talde sortu dira. Mireia Izagirre Zornoza eta Abes Kimu abesbatzetako zuzendariaren lanak izango du zerikusirik abesbatzen bide oparo horretan.**

Koralek loraldia bizi duzue Zornotzan?

Ez dut uste abesbatzen une onean bizi garenik. Koralek bidez besteko adina nahiko altua da. Harrobia falta zaigulakoan nago. Egia da koral gehiago dagoela, duela urte batzuetatik hona emakumeek ere arlo honetan parte hartzen dutelako. Adibidez, ahots zurien eta umeen koralek badaude. Beraz, gazteei dei egingo nieke, mundu honetara gerturatu, eta eza-gutu dezaten.

Errelebo falta zergatik izan daiteke?

Bizimodua asko aldatu da. Gazteen artean gehiago abesten zen familiarrean. Orain gutxiago abesten da. Hala ere, ikastetxeak saiatzen dira umeak eta gazteak motibatzen, musika txikitatik denon bizitzetan sartu dadin.

Zenbat abesbatzek dihardute Zornotzan?

Sei koralek. 60 urte bete dituen Zornoza abesbatza sortu zen lehenengo, eta bera da erreferentea. Hala ere, azken 25 urte-

tan beste hainbat talde sortu dira. Gustu guztietarako abesbatzak daude, talde bakoitzak bere ezaugarriak dituelako. Beraz, Zornotzan abesten ez duenak, nahi ez duelako izango da.

Musikaren inguruko ezagutzarik behar da abesbatzetan parte hartzeko?

Entzumen normala izatea oinarritzkoa da. Hortik aurrera, abesteko teknika ikasi egiten da, eta entzumen ere garatu egiten da. Beraz, musika hizkuntzan ezagutzarik izan barik ere abestu daiteke, ahots-teknika ikasita. Badaude entzumen oso txarra dutenak, baina ez da ohikoena.

Noiztik diharduzu musikaren munduan?

Jaio nintzenetik beti entzun izan dut abesten. Gurasoek asko abesten zuten, eta zaletasun handia genuen familian. Zornotzan nesken koral bat zegoela jakin nuenean, bertan hasi nintzen. Hasieran hamar neska ginen, eta Carmelo ikastetxean aita Eliseo zuzendari genuela ikasten genuen. Orain 30 urte izan zen hori. Elkarrean federatu zela 25 urte bete dira. Duela urte batzuk zuzendariak adinarengatik taldea utzi zuten, bere lekukoa hartu nuen, eta nesken taldea izatetik koral mistoa izatera pasatu zen. Hamasei urte daramatzat Abes Kimun, eta Zornoza abesbatzan hamar urte.

Abes Kimuk eta Zornozak elkarlanean ere abesten dute.

Talde bakoitzak bere ezaugarriak dituen arren, elkarlana

bultzatzen saiatzen naiz, obra handiagoak interpretatzeko. Bakoitzak bere izaera galdu barik; oso ondo funtzionatzen du elkarlan horrek.

Musika irakaslea zara, baina abesbatzak zuzentzea beste kontu bat da.

Musika eta pianoa ikasi nituen, baina abesbatzak gidatzeko ikasketak ere egin ditut. Orain hogeitun urte hasi nintzen zuzendaritza eta teknika ikastaroak hartzen.

Abesbatza bateko zuzendariak zer ezaugarri izan behar ditu?

Oinarritzkoa da musikaren inguruko ezagutza izatea, baina uste dut horretaz gainera psikologia berezi bat behar dela talde jendetsu baten aurrean jarri, eta zuzendari jarduteko. Zure aldera eramateko gaitasuna izan behar duzu, une bakar batean ere zakarra izan barik. Entseguak oso ondo aurreikusi behar dira, segundobat ere galdu barik; bestela, jendea aspertu egin daiteke. Jendea ilusionatzeko programa berriak abiatu behar dira, gauza berriak egin. Adibidez bat jarriko dizut. San Mamesen jokatzen du Athleticek, eta gizonen abesbatzan gehienak Athleticeko bazkideak dira. Esaten didatenez, denak elkartzeko gaiatsun handia dut, bat ere ez delako falta entsegura Athleticek jokatu arren.



LAUHORTZA

JOSE GARAIZABAL

Irakaslea



Dilema

Botila erdi hutsik edo erdi beteta, une bakoitzeko aldarreak markatzen du pertzepzioa. Baina mozkor bati galdetuz gero, botilan zerbait ikusiko balu, berarentzat beteta legoke; nahiz eta, ur tanta batzuk egon.

Gauza bera gertatzen zaie politikariei. Lehen ez zuten inon krisirik ikusten.

Gaur egun, aldiz, tunelaren amaierako argi izpiak ikusten dituzte.

Zer gura, hura sinistarazi gura.

Hori dela-eta, ondo goazen seinale moduan ezaugarri hauek jartzen dizkigute:

Etteen prezioak %1,4 egin du gora. Zelan erosiko du gazte jendeak, merkeen zeudenean ere ezin bazuen erosi?

Arabako enpresak hobera. Hamar konpainiatik zortzik espero dute emaitzei eustea edo hobetzea. Eta enpresa horietako langileen egoera zer?

Diruaren mailegua merkatu eginda, bankuei diru gehiago emango diete, gero eurek maileguan emateko. Ezin diote behar duenari zuzenean eman? Nork ordain lezake mailegu hori?

Patronalak zergak jaitea, eta inongo baldintzarik gabe nahi beste aldikako lan kontratu egiteko aukera eskatzen du. Non daude langileen eskubideak?

Dilemak aurrera darrai.

Patronalak eta politikariek bultzatutako aldaketak onartu eta jasan, ala geuk eragin beharrezko aldaketak?

Gaur egun gero eta indartsuagoa da gizartearen ahalmena, maila berean beharko genuke ahalmen politikoa. Beraz, argi eta garbi, horretara jo beharko genuke.

Eman diezaiogun gidaritza herriari, herri xeheak gero eta argiago ikusten baitu nor duen lagun eta nor etsai.

Hemen, Kafeari Baqué esaten diozu

Ostalaritzako marka liderra Euskadin

BAQUÉ
Café